

TABAKALERA



PROGRAMA
KULTUR PROIEKTUA

2017 —

URRIA
AZARROA
ABENDUA

Donostia / San Sebastián

—
tabakalera.eu

TABAKALERA



URRIA AZAROA ABENDUA





AURKIBIDEA

- 4.** EGUTEGIA
- 12.** ERAKUSKETAK
- 20.** ZINEMA
- 32.** PROGRAMA
PUBLIKOAK
- 40.** HIRIKILABS
- 46.** HEZKUNTZA
- 56.** UBIK. Sorkuntza
liburutegia
- 66.** SORTZAILEEN
GUNEA
- 70.** OHARRAK



SARRERA

Cale, cale, cale! Caale!!! udazkenari egiten diogun ongi etorri oihua da, gure bi **erakusketa** berrietako batek eskaintzen digun oihua, hau da, Juan Canela komisarioak magiaren, errituen eta irrazionalaren inguruan sortu duen erakusketa.

Canela heldu den hiritik, Bartzelonatik, dator baita ere Adrià Julià, *Hot Iron. Marginalia* erakusketaren sortzailea. Honek galdera enigmatiko bat planteatzean digu: ¿zer zerikusi daukate erromanikoak eta futbol amerikarrak?... Bi erakusketak urriaren 27an, ostirala, inauguratuko dira. Beraz, bi aldiz gonbidatuta zaude!

Eta **zinemaren** kasuan, Zinemaldia irailaren 30ean bukatzen bada ere, urrian Tabakalerak bere oihartzuna handituko du. Hori Zinemaldiko sail lehiakor irekienean, Zabaltegi Tabakalera, zabalduz, erreparatuz eta gehiago deskubrituz, egingo dugu.

Baina gure udazken-neguko filma urrunago joango da: kolaborazioak jaialdiekin, zinemagileen inguruko fokuak, *Euskadiko I. Arkitektura Bienala...* hemen ez da *the endarentzako* lekurik egongo.

Esku-hartzeko artistikoek eta eztabaidek osatuko dituzte, *Mugak / Fronteras* ikerketa proiektuaren barruan dauden saio ezberdinak.

Saio hauek hausnarketa dute helburu, batzuetan oztopo den eta besteetan aukera den kontzeptu honen inguruko gogoeta. **Programa publiko** hau gaitasun kritikoa eta pentsamendua mantentzeko programatuta ditugun eduki anitzetariko bat da. Honez gain aipatutako kontzeptuak azaroan **Sortzaileen guneak** bultzatutako komisariotza programaren testuinguruan Nora Sternfeldek koordinatuko duen mintegiaren barruan ere landuko dira.

Hurrengo hilabeteetan beharrezko eta gustuko geldialdi bat egin beharra dago **Hirikilabs** laborategian. Gauza asko antolatuta dira eta horien artean, udazken honetan leiho bat irekiko dugu Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Zientzia Astera. Azaroan izango da, **Ubikek** Koha Liburutegi Gestorearen, gure sorkuntza liburutegia espezialista den arloaren, inguruko bigarren topaketa hartuko duen hilabetea. Gainera, Ubiken, Tabakalera guztian bezala, askotariko ekitaldiz osatutako programa zabalitzen dugu. Eta nola ez, **hezkuntza** ere programa honen parte da familieie, elkarteie eta hezkuntza zentroei sorkuntza garaikidearen inguruko begirada berri eta desberdinak konpartitzeko deia egiten du ikasturte berriaren hasierarekin batera.



UNIVERSITY OF GEORGIA



EGU- TEGIA



Gogoratu eraikin osoko programa hileko agendan, gure web orrian eta sarrerako paneletan aurkituko duzula.

T URRIA

1

igandea

- **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 5-99** (or. 47)
 - **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 25)
-

3

asteartea

- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 62)
 - **IKUSPUNTUAK ETA KOSMOPOLITIKA. EZOHIOA IKUSI. BEGI AMESLARIAREN ISTORIOAREN APUNTEAK** (or. 36)
 - **SOLDADURA ESTAZIOAREN AKTIBAZIOA** (or. 42)
 - **AGUR #CASEANDO** (or. 44)
-

4

asteazkena

- **BISITA SOLASALDIA** (or. 14)
 - **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
 - **0-6 BIZI!. 0-6 URTE ARTEKO HAURRENTZAT LANGAI PEDAGOGIKOAK SORTZEN** (or. 53)
 - **SOLDADURA ESTAZIOAREN AKTIBAZIOA** (or. 42)
 - **AGUR #CASEANDO** (or. 44)
-

5

osteguna

- **MUGAK / FRONTERAS. BORDERLANDS** (or. 34)
 - **AGUR #CASEANDO** (or. 44)
 - **HIRIKILABS PLAZA VIII: PROIEKTU IREKIEN AURKEZPEN PUBLIKOA** (or. 45)
-

6

ostirala

- **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
 - **HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: GEOGRAFIA ETA BOTERE MOTAK. GORPUTZ KARTOGRAFIKAK** (or. 37)
 - **AGUR #CASEANDO** (or. 44)
-

7

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
 - **HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: GEOGRAFIA ETA BOTERE MOTAK. ARMA BILAKATUTAKO ARKITEKTURA** (or. 37)
 - **ARDUINOA EZAGUTU** (or. 61)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

8

igandea

- **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

10

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
 - **SENTSORE HIRITARRAK ETA LORA SAREAK** (or. 43)
-

11

asteazkena

- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
-

12

osteguna

- **GERUZAK, AZALAK, KROMA ETA ZU. BIDEOA EGIN KROMAREKIN** (or. 58)
-

13

ostirala

- **GERUZAK, AZALAK, KROMA ETA ZU. BIDEOA EGIN KROMAREKIN** (or. 58)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

14

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
 - **GERUZAK, AZALAK, KROMA ETA ZU. BIDEOA EGIN KROMAREKIN** (or. 58)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
 - **ARDUINOA EZAGUTU** (or. 61)
 - **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 63)
-

15

igandea

- **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

17

asteartea

- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 62)
 - **SENTSORE HIRITARRAK ETA LORA SAREAK** (or. 43)
-

18

asteazkena

- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
-

19

osteguna

- **GIZA LIBURUTEGIA** (or. 63)
 - **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
-

20

ostirala

- **0-6 BIZI! 0-3 URTEKOEN JOLASA: NOLA IZAN BIDELAGUN?** (or. 53)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

21

larunbata

- **ARDUINOAZ EGAGUTU** (or. 61)
 - **JOLABS. KUXKUXEAN** (or. 60)
 - **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
 - **KAMALEOIAK GARAI PROGRAMA 0-99. MANS** (or. 48)
 - **0-6 BIZI! 0-3 URTEKOEN JOLASA: NOLA IZAN BIDELAGUN?** (or. 53)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

22

igandea

- **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

24

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
 - **LIBURUTEGIAREN EGUNA: BIG DATA. KULTURA ETA LIBURUTEGIAK** (or. 63)
 - **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 25)
 - **FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: LASER MOZKETA** (or. 43)
-

25

asteazkena

- **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK Oh, ez! Zu berriz ere!** (or. 58)
 - **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
 - **LIBURUTEGIAREN EGUNA: BIG DATA. KULTURA ETA LIBURUTEGIAK** (or. 63)
 - **FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: LASER MOZKETA** (or. 43)
-

26

osteguna

- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
-

27

ostirala

- **CALE, CALE, CALE! CAALE!! eta HOT IRON. MARGINALIA ERAKUSKETEN INAUGURAZIOA** (or. 16 eta 18)
 - **EINHORN PERFORMANCEA** (or. 16)
 - **AGUJERO DE RÍO PERFORMANCEA** (or. 16)
 - **XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 58)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
 - **JOLASAK ERAIKITZEN** (or. 42)
-

28

larunbata

- **ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA** (or. 58)
 - **ARDUINOAZ EGAGUTU** (or. 61)
 - **IRAKASLEEKIN PROGRAMA. OINHERRI. FORMAKUNTZA TOPAKETAK** (or. 52)
 - **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

29

igandea

- **ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS** (or. 23)
-

31

asteartea

- **LAS PLUMAS PERFORMANCEA** (or. 37)

AZAROA

2

osteguna

- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
- **SUPRASENSORIAL VS SUBSENSORIAL. BIGARREN SINODO PSIKODELIKOA** (or. 37)

3

ostirala

- **GUTUN ZURIAK: Punto y Raya jaialdia** (or. 28)
- **DROGEK EZ DUTE FUNTZIONATZEN. EFEKTUEN ESTETIKA ETA JAKINTZAREN ERABILERA OKERRA** (or. 38)
- **HEZUR LERROKAKETA TERAPIA** (or. 38)
- **LAS PLUMAS II PERFORMANCEA** (or. 38)

4

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
- **DROGEK EZ DUTE FUNTZIONATZEN. EFEKTUEN ESTETIKA ETA JAKINTZAREN ERABILERA OKERRA** (or. 38)
- **HEZUR LERROKAKETA TERAPIA** (or. 38)
- **GAILU TEKNOLOGIKOEI ETEKINA ATERATZEKO LANTEGIAK** (or. 61)
- **KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0-99 PEQUEÑA MAX** (or. 48)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

5

igandea

- **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 5-99** (or. 30)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

6

astelehena

- **KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN** (or. 68)
- **DISEINU IREKIA ETA FABRIKAZIO DIGITALA** (or. 43)

7

asteartea

- **KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN** (or. 68)
- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 62)
- **DISEINU IREKIA ETA FABRIKAZIO DIGITALA** (or. 43)

8

asteazkena

- **BISITA SOLASALDIA** (or. 16)
- **KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN** (or. 68)
- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)

- **KOMIKILABEA. GORPUTZA KOMIKI BIHUR DEZAGUN** (or. 64)
- **DISEINU IREKIA ETA FABRIKAZIO DIGITALA** (or. 43)

9

osteguna

- **KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN** (or. 68)
- **KOMIKILABEA. NOLAKOA DA ZURE HEROIA?** (or. 64)
- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
- **PERNILLE WITH MADSENEN ESKU-HARTZEA** (or. 39)
- **DISEINU IREKIA ETA FABRIKAZIO DIGITALA** (or. 43)
- **ZIENTZIA ASTEA** (or. 44)

10

ostirala

- **KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN** (or. 68)
- **KOMIKILABEA. NOLAKOA DA ZURE HEROIA?** (or. 64)
- **ZIENTZIA ASTEA** (or. 44)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

11

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
- **GAILU TEKNOLOGIKOEI ETEKINA ATERATZEKO LANTEGIAK** (or. 61)
- **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 63)
- **KOMIKILABEA. EZ IZAN KOMIKIAREN BELDUR! BINETEN SORKUNTZARA SARRERA LANTEGIA** (or. 64)
- **ZIENTZIA ASTEA** (or. 44)
- **0-6 BIZ!! YOGA FAMILIAN** (or. 53)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: KOMIKILABEA** (or. 25)

12

igandea

- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

14

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
- **DO IT YOUR SHELF. APALATEGIA BIDEO-JOKO BIHURTU** (or. 60)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

15

asteazkena

- **DO IT YOUR SHELF. APALATEGIA BIDEO-JOKO BIHURTU** (or. 60)
- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
- **MUGAK / FRONTERAS. HOTS HIRU AHOTS BAKARREAN** (or. 34)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

16

osteguna

- **DO IT YOUR SHELF. APALATEGIA BIDEO-JOKO BIHURTU** (or. 60)
- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
- **ARCHIVERAS. MEMORIAK BERPIZTU** (or. 19)

17

ostirala

- **DO IT YOUR SHELF. APALATEGIA BIDEO-JOKO BIHURTU** (or. 60)
- **ARCHIVERAS. MEMORIAK BERPIZTU** (or. 19)
- **MUGAK / FRONTERAS. 'LAS BUENAS COMPAÑÍAS' FILM LABUR-DOKUMENTALA** (or. 34)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: ARKITEKTURA BIENALA** (or. 27)
- **GEOMATIKA TOPAKETA** (or. 44)

18

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
- **JOLABS. KUXKUXEAN** (or. 60)
- **GAILU TEKNOLOGIKOEI ETEKINA ATERATZEKO LANTEGIAK** (or. 61)
- **KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETAK 5-99. IKUSI MAKUSI** (or. 49)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

19

igandea

- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

20

astelehena

- **IRAKASLEEKIN PROGRAMA. PEDAGOGIA FEMINISTAK. LAN TALDEA. ZERO SAIOA** (or. 52)

21

asteartea

- **KARTEN IRAKURKETA PERFORMACEA. Equipo Jeleton** (or. 16)
- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 62)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

22

asteazkena

- **MARIO BLASER. PLURIBERTSOA: ANTROPOZENOAREN ONTOLOGIA POLITIKOAREN APUNTEAK** (or. 36)
- **BISITA SOLASALDIA** (or. 18)
- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

23

osteguna

- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
- **KOHAERENCE 2017** (or. 64)

24

ostirala

- **KOHAERENCE 2017** (or. 64)
- **XAKE MATE! MAHA! JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 58)
- **ZINEMA. GUTUN ZURIAK: MOSTRA INTERNACIONAL DE FILMS DE DONES DE BARCELONA** (or. 28)

25

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
- **ESPLORATZAILAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA** (or. 58)
- **ZINEMA. GUTUN ZURIAK: ZINETEKA** (or. 29)
- **LABORATEGIAK. PROGRAMAZIO TALDEA** (or. 30)

26

igandea

- **HERETIKOAREN ALABA** (or. 38)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

27

astelehena

- **IRAKASLEEKIN PROGRAMA. FEMINISTALDIA. PEDAGOGIA FEMINISTAK. Sistema berrabiaraziz: gure gorputzak, gure generoak eta gure kontatzeko erak** (or. 52)
- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)

28

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
- **IRAKASLEEKIN PROGRAMA. FEMINISTALDIA. PEDAGOGIA FEMINISTAK. Sistema berrabiaraziz: gure gorputzak, gure generoak eta gure kontatzeko erak** (or. 52)
- **ZINEMA. FOKUAK: VALIE EXPORT** (or. 27-28)
- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

29

asteazkena

- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)
- **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK MARRAZTU VS. ILUSTRATU** (or. 58)
- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
- **DIY SOUNDSYSTEM** (or. 43)

30

osteguna

- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)
- **HIRIKILABS PLAZA VIII** (or. 45)
- **ATALAK XXIX** (or. 68)

ABENDUA

1

ostirala

- **JOLASAK MARTXAN!** (or. 42)
- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)
- **MIREN DOIZEN ESKU-HARTZEA** (or. 39)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

2

larunbata

- **DO IT IN FAMILY III** (or. 42)
- **LANTEGI IREKIAK** (or. 68)
- **HOBETU ZURE BIZIKLETA. LANTEGIA KALAPIE ELKARTEAREKIN** (or. 64)
- **ZINEMA GARAIDEA** (or. 25)
- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)

3

domingo

- **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 5-99** (or. 47)
- **ZINEMA. FOKUAK: VALIE EXPORT** (or. 27-28)
- **FEMINISTALDIA XII** (or. 38)

5

martes

- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 62)

8

ostirala

- **PLÓMEZ FAMILIA. ANTZINAKO INPRENTEKIN BERRESKURATZAILERAK. SUPER TIPO VELOZ. HAUR LANTEGIA** (or. 59)
- **ZINEMA. FOKUAK: VALIE EXPORT** (or. 27-28)

9

larunbata

- **PLÓMEZ FAMILIA. ANTZINAKO INPRENTEKIN BERRESKURATZAILERAK. EGURREZKO TIPOAK. KARTEL LANTEGIA** (or. 59)
- **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 63)
- **ZINEMA. FOKUAK: VALIE EXPORT** (or. 27-28)
- **ZINEMA. GUTUN ZURIAK: XIXONGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA** (or. 29)

10

igandea

- **PLÓMEZ FAMILIA. ANTZINAKO INPRENTEKIN BERRESKURATZAILERAK. TXARTEL INPRESIOA. FAMILIA LANTEGIA** (or. 59)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

12

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
- **EGINZALEAK! 2017** (or. 45)

13

asteazkena

- **BISITA SOLASALDIA** (or. 16)
- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
- **EGINZALEAK! 2017** (or. 45)

14

osteguna

- **MUGAK/FRONTERAS MINTEGIA** (or. 35)
- **EGINZALEAK! 2017** (or. 45)

15

ostirala

- **MUGAK/FRONTERAS MINTEGIA** (or. 35)
- **EGINZALEAK! 2017** (or. 45)

16

larunbata

- **MUGAK/FRONTERAS MINTEGIA** (or. 35)
- **ALFABETO MÓVIL** (or. 35)
- **JOLABS. KUXKUXEAN** (or. 60)
- **KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETAK 5-99. IKUSI MAKUSI** (or. 49)
- **EGINZALEAK! 2017** (or. 45)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

17

igandea

- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)

19

asteartea

- **ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA** (or. 32)
-

20

asteazkena

- **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
-

22

ostirala

- **ZINEMA. ZIKLOAK: CADABRA-ABRA** (or. 24)
-

23

larunbata

- **KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0-99. RETRO IPUINAK** (or. 48)
 - **ZINEMA. ZIKLOAK: ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 25)
-

26

asteartea

- **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 60)
 - **NEGUKO LANTEGIAK: ZIKLOTROPOA. MUGITU GAUZA BERRIAK DESKUBRITZEKO** (or. 61)
 - **HIRIA HACHEATU. KONTRA EGIN! PUBLIZITATEA HACHEATU ETA KONTRA-PUBLIZITATEA** (or. 54)
-

27

asteazkena

- **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK GURUTZE + PUNTUA = GURUTZEPUNTUA!** (or. 58)
 - **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 62)
 - **NEGUKO LANTEGIAK: ZIKLOTROPOA. MUGITU GAUZA BERRIAK DESKUBRITZEKO** (or. 61)
 - **HIRIA HACHEATU. KONTRA EGIN! PUBLIZITATEA HACHEATU ETA KONTRA-PUBLIZITATEA** (or. 54)
-

28

osteguna

- **NEGUKO LANTEGIAK: ZIKLOTROPOA. MUGITU GAUZA BERRIAK DESKUBRITZEKO** (or. 61)
 - **HIRIA HACHEATU. KONTRA EGIN! PUBLIZITATEA HACHEATU ETA KONTRA-PUBLIZITATEA** (or. 54)
-

29

ostirala

- **XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 58)
 - **NEGUKO LANTEGIAK: ZIKLOTROPOA. MUGITU GAUZA BERRIAK DESKUBRITZEKO** (or. 61)
 - **HIRIA HACHEATU. KONTRA EGIN! PUBLIZITATEA HACHEATU ETA KONTRA-PUBLIZITATEA** (or. 54)
 - **ZINEMA. ZIKLOAK: ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 25)
-

30

larunbata

- **BISITA ESPERIMENTALA** (or. 17)
- **ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA** (or. 58)
- **ZINEMA. ZIKLOAK: ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 25)



CALE

CALE

CALE

CALE

CALE, CALE, CALE! CALE!!!

ERAKUS- KETAK

Aurkibidea

**Erakusketa aretoa (1 eta 2 aretoak):
ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN RAQUELLO
ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA**

· HEZKUNTZA PROGRAMA

CALE, CALE, CALE! CAALE!!!

· LOTUTAKO EKINTZAK
· HEZKUNTZA PROGRAMA

HOT IRON. MARGINALIA

· LOTUTAKO EKINTZAK
· HEZKUNTZA PROGRAMA

Esku-hartzeak:

MALAS MADRES. SOKATIK ZINTZILIK DAUDEN BIZITZAK
Jerónimo Hagerman

MAÑANA GOODBYE.

ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME-TALDEA
· LOTUTAKO EKINTZAK

Erakusketa aretoen eta Sotoaren ordutegia:

Asteartetik ostegunera: 12:00 - 20:00

Ostirala: 12:00 - 21:00

Larunbata: 10:00 - 21:00

Igandea eta jaiegunak: 10:00 - 20:00





2017/06/23 > 2017/10/15

Erakusketa

ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN RAQUELLO ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA

Artista: *Eric Baudelaire*

📍 Erakusketa aretoa 1 eta 2

Ramón Raquello eta bere orkestraren musika Eric Baudelaireren obraren orain arteko banakako erakusketa zabalena da Espainiar estatuko erakunde publiko batean. Eric Baudelaire artista eta ekoizlearen obrak, modu naturalean uztartzen ditu eremu artistikoa eta zinematografikoa.

Artxiboko materialean oinarrituta, eta dokumentala, narraziozko fikzioa eta artxibo historiko baten eraikuntza baliatuz, irudiaren boterea aztertzen du irudiz gainezka dagoen mundu honetan.

Bere azken lana, *Also Known As Jihadi* (2017) erakusketan

aurkeztu da. Haren ekoizpenean Tabakalerak parte hartu du. Gazte baten ibiliak dira gaia; Frantziatik Siriara eta atzera Frantziara. Paisaiaren teoriaren metodoa (*fukeiron* izenekoa) eta agiri judizialak uztartzen ditu, narrazioa eta edizio-baliabide gisa. Japonian sortu zen fukeirona, eta paisaiaren dimentsio politikoa eta poetikoa aztertzen ditu.

Proiektu hau Rotterdameko Witte de With Center for Contemporary Art-en elkarlanaren emaitza da eta Institut Français-en laguntzarekin egin da.

HEZKUNTZA PROGRAMA

URRIAK 4 (asteazkena)

Bisita


BISITA SOLASALDIAK

18:00 - 19:00 ES / 19:00 - 20:00 EU

*Zeinu hizkuntzako interpretazio zerbitzua eskuragai alde aurretik eskatuta.

Izen ematea alde aurretik.

📍 Erakusketa aretoa 1



Eric Baudelaire. Ramón Raquello eta bere orkestraren musika

2017/10 /27 > 2018/02/04

Erakusketa

**CALE, CALE, CALE!
CAALE!!!**Komisarioa: *Juan Canela*Artistak: *Elena Aitzkoa, Valentina Desideri & Corazón del Sol, Tamar Guimarães & Kasper Akhøj, Oier Iruretagoiena, Equipo Jeleton, Julia Rometti & Víctor Costales, Beatriz Santiago eta Osías Yanov*
📍 Erakusketa aretoa 1

“Magia”-ren eta “arrazionaltasuna”-ren artean aukeratu beharra zibilizazio modernoaren jatorrian dagoen gai nagusietako bat izan zen. Behin eta berriz bigarrenaren aldeko apustua nabarmendu zen, lehenengoa ezkutatu eta ahaztea nahi izan zen bitartean. *Cale, cale, cale! Caale!!!* erakusketak magiari, errituari eta irrazionala denari dagokion lekua eztabaidan jarri nahi du eta honek naturarekin duen

harremana aztertu Antropozeno edo Kapitalozeno bezala ezagutzen dugun aro geologiko honetan, edo are hobeto, Donna Haraway-k bere manifestuan Chthuluceno bezala izendatzen duen aro honetan.

Proiektu honek saio kolektibo baten forma hartu nahi du, ideiak eta gorputzak, desioak eta testuinguru ezberdinak batuko dituen espazio-denborazko koreografia bat sortuz helburu zehatz batekin: orain arte ohikoak izan ditugun dikotomiak (magia-arrazionaltasuna, kultura-natura) lausotzea eta, era berean, erresistentziarako eta kolektibotasuna lantzeko espazio berriak sortzeko lekua izatea.

Erakusketa hau Tabakalerak 2016. urtean egindako komisariotza egonaldirako deialdiaren emaitza da.

Elkarlana: Danish Art Foundation.



Agujero de río. Elena Aitzkoa

**LOTUTAKO EKINTZAK**

URRIAK 27 (ostirala)

Inaugurazioa

INAUGURAZIOA

19:00

📍 Erakusketa aretoa 1

Performancea

EINHORN

Osías Yanov

19:00

Magia ez da gertaera unibertsal eta naturala. Aitzitik, naturaren ezeztatze bat da, desartikulazio bat, indar hau kontrolatzeko modu bat. Perspektiba honetatik, eta askotariko elementu eta koreografiak erabiliz, indar natural bat eta indar kontrolatu bat bereizteko gai izango ote ginatkeen pentsatzeko saio gisa, *Einhorn* magiaren protokolo auto-hezitzaile, amateur eta espezifikoarenekin diseinu bezala aurkezten zaigu, hots, proposamen espazial eta korporalak garatzen dituen praktika bezala.

Performancea

AGUJERO DE RÍO

Elena Aitzkoa

20:00 ES

📍 Erakusketa aretoa 1

Agujero de río-k (Ibaiaren zuloa) ibaiaren zulotik ihes egiten du eta korrontearen hots arrunt eta polifonikoa entzuten du. Harrien aurka behin eta berriz talka eginez esaten du: "Arraioa! ez gaituzte sekula lehortuko!" Ikas ezazu mugitzen, har ezazu sua estekagailu batean. Aska ezazu lakua, arrainak, oinak, ahoaz-ahoko hitza. Harrien artean: bihotza.

AZAROAK 21 (asteartea)

Karten irakurketa

KARTEN IRAKURKETA

Equipo Jeleton

18:00

📍 Erakusketa aretoa 1

Landare magikoak, ahalmen bereziak dituzten loreak, naturatik bereizi ezinak diren ezaugarriak dira. Etorkizuna irakurtzea, etorkizuna kartetan "botatzea", tarotean konbinazioak egitea. Equipo Jeleton-ek erakusketa honetarako bereziki egin dituen tarot karten irakurketa egitea proposatzen digu. Lan hau, ibilbide luzeagoa duen *Historia política de las flores* proiektuaren barruan kokatzen da.

AZAROAK 22 (asteazkena)

Mintegia

MARIO BLASER.**PLURIBERTSOA:****ANTROPOZENOAREN****ONTOLOGIA POLITIKOAREN APUNTEAK***"Visiones y Cosmopolítica" UPV/EHUko**Gizarte Antropologia masterrarekin**elkarlanean landutako programa*

15:30 - 17:30 > Mintegia

18:00 > Hitzaldia

📍 Sortzaileen gunea

+ *Info: Programa publikoaren atalean.*
(36 or.)

HEZKUNTZA PROGRAMA

AZAROAK 8; ABENDUAK 13

(asteazkena)

Bisita

BISITA SOLASALDIAK

18:00 - 19:00 ES / 19:00 - 20:00 EU

*Zeinu hizkuntzako interpretazio zerbitzua eskuragai alde aurretik eskatuta.

Izen ematea alde aurretik.

📍 Erakusketa aretoa 1

ABENDUAK 30 (larunbata)

Bisita

BISITA ESPERIMENTALA

12:00

Izen ematea aldez aurretik.

📍 Erakusketa aretoa 1

*Oraingo honetan, **Ainhoa Martín Blázquez**, Gizarte hezitzailea eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia unibertsitateko irakaslea (UPV/EHU) gonbidatu du gu erakusketan barrena gidatu gaitzan.*

Ibilbide hauetarako hezitzaileak, zientzialariak, biologoak, historialariak, antropologoak, ikasleak... gonbidatzen ditugu Tabakalerak hartzen dituen erakusketen gainean ikuspuntu berriak eskaini ditzaten. Helburua erakusketa-aretoetan ustekabeko topaketak eragitea da, bestela gertatuko ez liratekeen irakurketak ahalbidetzeko.

2017/10/27 > 2018/02/04

Erakusketa

HOT IRON. MARGINALIA

Artista: **Adrià Julià**

📍 Erakusketa aretoa 2

Hot Iron. Marginalia Adrià Juliàren erakusketa indibiduala da, Ramón Julià Alemanyk (1908-1994), XX. mendeko 50. eta 90. hamarkadetan nagusiki Katalunian katalogatu zituen 556 eliza erromanikoren argazkien artxiboaren zati dena. Artistak ikerketa lan luze bat eta estrategia kontzeptual ezberdinak erabiltzen ditu, inportazio eta esportazio kulturalen aldaketa kontzeptuaren eta harreman ekonomikoen inguruan hitz egiteko. Dinamika hauek lurraldearen, ondarearen

eta emakumearen gorputzaren esplotazioan eta kirolaren eta turismoaren eraginezko kulturaren birdefinizioan daukate eragina. Juliàk berez harremanik ez duten gertakizunen artean sortzen diren harreman gurutzatuak aztertzen ditu proiektu honetan. Hala nola, aurreko mende hasieran amerikarrei egindako kataluniako pintura erromantikoen salmentak eta futbol amerikarraren ezarpena Bartzelonan, Montjuïc kirolaren zentro bilakatzen zen bitartean.

Erakusketa hau joan den udaberrian Bartzelonan Joan Miró Fundazioan egin zen erakusketaren jarraipena eta moldaketa da. Bertan erakusten den pelikularen produkzioan kolaboratu du Tabakalerak.



Hot Iron. Marginalia, Adrià Julià



URRIAK 27 (ostirala)

Inaugurazioa

INAUGURAZIOA

19:00

📍 Erakusketa aretoa 2

HEZKUNTZA PROGRAMA

AZAROAK 22 (asteazkena)

Bisita

BISITA SOLASALDIAK

18:00 - 19:00 ES / 19:00 - 20:00 EU

*Zeinu hizkuntzako interpretazio zerbitzua eskuragai alde aurretik eskatuta.

Izen ematea alde aurretik.

📍 Erakusketa aretoa 2

ASTEARTE BAT HILERO

TESTU-INGURUAN. ARTE GARAIKIDERA HURBILKETA

18:30 - 20:00

Hiru saio erakusketa bakoitzeko.

Izen ematea alde aurretik.

Edozein pertsona interesaturik zuzendua. Ez da beharrezkoa arte garaikidean alde aurretiko ezagutzarik izatea.

Testu-inguruan Tabakalera egiten diren erakusketekin batera diharduen ikasketa-talde bat da. Hilero elkartzen gara erakusketen edukietan sakondu eta bestelako ideia eta eztabaidak aktibatzen. Testuak, filmak, erakusketetako obrak edo haiekin zerikusia duten beste hainbat material berrikusten ditugu, arte garaikidearekin lotuta dauden gaietan auto-hezteko asmoarekin.

2017

Esku-hartzea

MALAS MADRES. SOKATIK ZINTZILIK DAUDEN BIZITZAK

Jerónimo Hagerman

📍 Plazako balkoia

Esku-hartze artistiko honek eraikina hautemateko beste era batzuk eskaintzen dizkigu. Beste izaki bizidun bat airean zintzilik ikusten dugunean sentitzen dugu bertigoak ohartarazten gaitu lurrean ainguratuta dugun bizi-egoera hauskorraz.

Mexikarrek “malas madres” (ama txarrak) bezala ezagutzen dituzten landareen ehun batez osatzen da pieza. Hala esaten zaie landare horiei euren kimuak habitik kanpo botatzen dituztelako.

Babeslea: Giroa-Veolia / Ondoan.



2017

Erakusketa

MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME-TALDEA

Koordinazioa: Marion Cruza,
Pablo Marte.

📍 Sotoa

2015eko otsailaz geroztik bi artistekin, tabako-fabrikako langile ohien talde batekin eta aktore-talde batekin lan egin dugu *Mañana Goodbye* proiektuan. Hamabi kapituluko serie bat da, eta garai bateko tabako-fabrika egungo Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa bihurtu zeneko ekoizpen ereduaren aldaketa aztertzen du. Airean bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionez, zer behar dugu iraganetik? Eta nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan?

LOTUTAKO EKINTZAK

Lan prozedura

ARCHIVERAS ELKARREKIN LAN EGITEN JARRAITUKO AL DUGU?

Tabakalera-ren gaineko artxibo kolektiboa sortzeko prozesua

Archiveras proiektua ezagutzaren eraikuntza kolektiboa aktibatzeko sortu den espazioa da, Tabakalerako langile ohi eta berrien topaketa batzuetatik sortua.

Datorren 2017/18 ikasturtean hilabetean bi aldiz bilduko gara dokumentuak aukeratzeko, irudiak eskaneatzeko, testigantzak jasoko eta katalogatzeko jarraitzeko, hein batean, taldean eraikitako artxibo bat sortzen joan eta historia nola idazten eta kontatzen den auzitan jartzeko, normalean kontatzen ez den hori ere jasoa izan dadin.

Tabako fabrikako langile ohia bazara eta proiektu honetan parte hartu nahi baduzu, idatzi honako helbidera: hezkontza@tabakalera.eu

AZAROAK 16, 17 (osteguna > ostirala)

Hitzaldia

MEMORIAK BERPIZTU

Mariló Fernández - LaFundició

18:00 ES

📍 Sotoa

Taldearen lan prozesuarekin bat eginik, Mariló Fernández (LaFundició) gonbidatu dugu bi saioko programa publiko bat proposatzera eta tradizionalki garrantzi "gutxiko" memoriak eta istorioak bezala irakurriak izan diren haiek berpiztearen inguruan pentsatzera.

Topaketa hauetan, *Archiveras* taldea garatzen ari den lan prozesua eta La Fundició-ren lan esperientzia ezagutuko ditugu.

MADE IN AUSTRIA

VALIE



EXPORT

ZINE- MA

Aurkibidea

ZIKLOAK

- ZABALTEGI-TABAKALERA + PLUS
- CADABRA-ABRA
- KOMIKILABEA
- ZINEMA GARAIDEA / KLASIKO GARAIDEAK
- ARKITEKTURAKO BIENALA

FOKUAK

- VALIE EXPORT

GUTUN ZURIAK

- PUNTO Y RAYA JAIALDIA. ARTE ABSTRACTO EN MOVIMIENTO
- MOSTRA INTERNACIONAL DE FILMS DE DONES DE BARCELONA
- ZINETIKA VIDEODANZA FESTIVAL
- XIXONGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA

KAMALEOIAK GARA! ZINEMA

HORMA

- ANA VAZ
- CARLA ANDRADE
- EMILIO MORENO

LABORATEGIAK

- PROGRAMAZIO TALDEA

PROIEKTUAK

- ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS



ZIKLOAK ZABALTEGI- TABAKALERA + PLUS


Zabaltegi-Tabakalera + PLUS

Donostia Zinemaldiaren barruan dauden sail lehiakorren artean zabalena da. Hemen ez dago estiloa eta denbora zehazten duten araurik edo mugarik; film laburrak, metraje erdiko filmak, film luzeak, fikzioak, telesailak, dokumentalak, animazio lanak, instalazioak, emakumezko zein gizonezko egileak, etorkizuneko aurkikuntzak zein klasiko garaikideak. Gai zein forma berriak bilatzen dituen zinema mundu osoko aretoetan ikusgai dagoela egiaztatu eta programatzea da helburua. Esperientzia zinematografikoagandik gehiago espero duten ikus-entzuleentzat espazio zabala eta arriskutsua da.

Lehenengo urtean 10 izenburu aukeratu bagenituen Zinemaldia urrian zehar heda zedin, aurten urrats bat harago joango gara; hilabete osoan zehar 12 saio izango dira, zuzendari berrien lanak ikusi, berraztertu eta aditzera emateko.

Sail lehiakorreko 4 izenburu errepikatuko ditugu, gainontzekoak proposatutako unibertsoen zabalkundeak izango dira; ahizpak diren filmak, korrespondentziak, aurrekariak diren film laburrak, lehen filmak eta sailaren begimuga oraindik eta hedatuagoa bihurtuko duten pelikulak: Zabaltegi-Tabakalera inoiz baino Zabaltegi-Tabakalera.

Donostia Zinemaldiarekin batera eskainitako zikloa.



Spell Reel, Filipa César

1. BLOKEA: Begirada dokumentala. Klasiko handiak.

URRIAK 6 (ostirala)

20:00

Journal de France, Raymond Depardon, Frantzia, 2012, 100'.

URRIAK 7 (larunbata)

Saio bikoitza (2x1)

18:00

Visages Villages, Agnès Varda eta JR, Frantzia, 2017, 89'.

21:00

La pointe courte, Agnès Varda, Frantzia, 1954, 86'.

URRIAK 8 (igandea)

19:00

Titicut Follies, Frederick Wiseman, AEB, 1967, 84'.

2. BLOKEA: Promesak sailean dauden zinemagileen lehen edo bigarren lanak.

URRIAK 13 (ostirala)

20:00

Poslednata lineika na Sofia (La última ambulancia de Sofía), Ilian Metev, Bulgaria, 2012, 75', JBAEU.

URRIAK 14 (larunbata)

Saio bikoitza (2x1)

18:00

Braguino, Clément Cogitore, Frantzia, 2017, 49'.

21:00

Ni le ciel, ni la terre, Clément Cogitore, Frantzia, 2015, 100'.

URRIAK 15 (igandea)

19:00

La Reina, Manuel Abramovich, Argentina, 2014, 19'.

Solar, Manuel Abramovich, Argentina, 2016, 76'.

3. BLOKEA: Artxiboa, saiakera politikoa eta kolonia borroka.

URRIAK 20 (ostirala)

20:00

Mortu Nega, Flora Gomes, Guinea-Bissau, 1988, 85'.

URRIAK 21 (larunbata)

Saio bikoitza (2x1)

18:00

Spell Reel, Filipa César, Alemania-Portugal-Frantzia-Guinea Bissau, 2017, 96'.

21:00

Xime, Sana Na N'Hada, Guinea Bissau-Herbehereak, 1994, 95'.

URRIAK 22 (igandea)

19:00

Sans Soleil, Chris Marker, Frantzia, 1983, 100'.

4. BLOKEA: Artxiboa, historia eta lehen petsona.

URRIAK 27 (ostirala)

20:00

Cuaterros, Albertina Carri, Argentina, 2016, 83'.

URRIAK 28 (larunbata)

Saio bikoitza (2x1)

18:00

No intenso agora, João Moreira Salles, Brasil, 2017, 127'.

21:00

Santiago, João Moreira Salles, Brasil, 2007, 80'.

URRIAK 29 (igandea)

19:00

Mourir á trente ans, Romain Goupil, Frantzia, 1982, 97'.



CADABRA-ABRA

Juan Canela (1989 urtean jaioa, Bartzelonan bizi eta lan egiten du) udazkenean Tabakaleran ikusgai izango den *Cale, cale, cale! Caale!!!* erakusketaren komisarioa da. Harridura keinu hau Bota, bota, bota, bota!!! gisa itzuli daiteke eta Italiako hegoaldean euria eskatzeko aztikeria bati egiten dio erreferentzia. Erakusketak magia, errituak eta irrazionala dena zalantzan jartzen du, naturari eta arteari tarte berezia eskainiz.

Zinema eta magiaren artean dagoen harremana erreparasaten du zikloak; zinema eta ezkutukoa dena, espiritualitatea, erritualak, sakratua dena, konjuruak eta agerraldi-desagertze misterioitsuak.

AZAROAK 4 (larunbata)

19:00

Libera Nos (Liberami), Federica Di Giacomo, Italia, 2016, 97'.

AZAROAK 5 (igandea)

19:00

Häxanaka, Benjamin Christensen, Danimarka, 1922, 105'.

AZAROAK 10 (ostirala)

19:00

A Taranta (Tarantulla), Gianfranco Mingozzi, Italia, 1961, 18'.

Divine Horsemen: The Living Gods of Haiti, Maya Deren, AEB, 1985, 52'.

AZAROAK 12 (igandea)

18:00

Fuego en Castilla, José Val del Omar, Espainia, 1960, 20'.

I Walked with a Zombie, Jacques Tourneur, AEB, 1943, 69'.

AZAROAK 18 (larunbata)

19:00

Converso, David Arratibel, Espainia, 2017, 61'.

AZAROAK 19 (igandea)

18:00

Lourdes, Jessica Hausner, Austria, 2009, 96', JBAEU.

AZAROAK 26 (igandea)

18:00

Harry Potter and the Philosopher's Stone (Harry Potter y la piedra filosofal), Chris Columbus, Erresuma Batua, 2001, 152'.

ABENDUAK 1 (ostirala)

19:00

Medea, Pier Paolo Pasolini, Italia, 1969, 110'.

ABENDUAK 10 (igandea)

18:00

The Wizard of Oz (El mago de Oz), Victor Fleming, AEB, 1939, 98'.

ABENDUAK 16 (larunbata)

19:00

Picnic at Hanging Rock, Peter Weir, Australia, 1975, 110'.

ABENDUAK 17 (igandea)

18:00

Le rayon vert, Eric Rohmer, Frantzia, 1986, 94'.

ABENDUAK 22 (ostirala)

19:00

Magia Lucana, Luigi di Gianni, 1958, Italia, 18'.

Socotra, la isla de los genios, Jordi Esteve, Espainia, 2015, 64'.

KOMIKILABEA

Komikiaren mundua artearen, hizkuntzaren eta sormenaren aldetik begiratzeko aukera ematen duen topaketa da *Komikilabea*. Gipuzkoako Foru Aldundiak, hiriko beste hainbat eragileren laguntzarekin, sustatutako ekimenak bigarren edizioa ospatuko du aurten.

Tabakalerako ikus-entzunezko saileko kideok ere komikiaren festarekin bat egin nahi izan dugu eta bi izenburu proposatu ditugu: alde batetik, lehengo urteko animazio lanen artean garrantzitsuenetarikoa izan zena: *Ethel & Ernest*, Roger Mainwoodena. Londreseko Zinema Jaialdiko sail ofizialean estreinatu zen, eta Raymond Briggs-ek sortutako nobela grafikoan dago oinarrituta, komikigintza ingelesean funtsezkoa den egilea da Briggs.

Saioa osatzeko, Roger Mainwood marrazkigilearen lehen lana ere ekarriko dugu; bideoklipen historian giltzarria den lana, belaunaldi oso bat markatu zuena.

AZAROAK 11 (larunbata)

19:00

Autobahn (*Kraftwerk-entzat eginiko bideoklipa*), Roger Mainwood, Erresuma Batua, 1979, 12'.
Ethel & Ernest, Roger Mainwood, Erresuma Batua-Luxemburgo, 2016, 85'.

ZINEMA GARAIKIDEA/ KLASIKO GARAIKIDEAK

Autore zinema, nazioarteko zinemaldi zirkuituko zinema, banatzaile independenteen zinema eta klasiko garaikideak.

URRIAK 1 (igandea)

19:00

ZINEMA GARAIKIDEA

Aurtengo Zinemaldian saritutako pelikula baten proiektzioa.

URRIAK 24 (asteartea)

KLASIKOAK

Errusiar iraultzaren mendeurrena ospatzeko programa bikoitza Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik.

Kutxa Fundazioa, Euskadiko Filmategia eta Tabakaleraren ekimena.

18:00

IRAULTZAK: ZINEMA SOBIETARRAREN KANONA BERRIRO PENTSATZEN

Hitzaldia Carlos Muguireoren eskutik, Elias Querejeta Zine Eskolako zuzendaria eta Humanitateetan doktore "Estética de la naturaleza en el cine ruso y soviético" izeneko tesiarekin.

20:00

La nueva Babilonia (Nouvy Vavilon), Grigori Kozintsev eta Leonid Trauberg, Sobiet Batasuna, 1929, 93'.

Musikatutako proiektzioa. Dmitri Shostakovich konpositorearen lanak joko ditu zuzenean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak.



ZINEMA

ABENDUAK **2** (larunbata)

19:00

KLASIKO GARAIDEAK

Cléo de 5 à 7, Agnès Varda, Frantzia, 1962, 90'.

ABENDUAK **23** (larunbata)

19:00

ZINEMA GARAIDEA

Colo, Teresa Villaverde, Portugal-Frantzia, 2017, 136'.

ABENDUAK **29** (ostirala)

19:00

ZINEMA GARAIDEA

Colo, Teresa Villaverde, Portugal-Frantzia, 2017, 136', JBA euskaraz eta ingelesez.

ABENDUAK **30** (larunbata)

19:00

ZINEMA GARAIDEA

Las cinéphilas, María Álvarez, Argentina, 2017, 70'.



Los Angeles Plays Itself, Thom Anderson

ARKITEKTURA BIENALA

Udazkenero legez, Tabakalera arkitekturaren mundura gerturatuko da programa desberdinak baliatuta. Zinema sailetik egiten dugun ekarpenaren abiapuntua hainbat galderek osatzen dute: Zein izan da zinemaren ekarpena hirien irudikapen kolektiboa osatzeko? Zergatik bizi dugu film baten barruan egotearen sentsazioa Los Angeles bezalako paisaia ikusten dugunean?

Eta zinemak hainbat paisaia begiratzen erakutsi badigu, kontrako zentzuan ere egin daiteke bidaia bera? Arkitekturak eta hirigintzak erakutsi diezagukete filmak ikusten?

Galdera hauei guztiei erantzunak topatzen hasteko, programazio bikoitza prestatu dugu. Alde batetik, klasiko garaikide baten proiektzioa; irudimen zinematografikoa eta hirigintzaren arteko harremana planteatzen duen film klasiko horietako bat. Los Angeleseko hiria zinemak nola aurkeztu duen aztertzen duen film-saiakera: *Los Angeles Plays Itself* (2003). California Institute of the Arts zinema eskolako irakasle eta zinemagilearena, Thom Andersen.

Zikloa *Slow Writing: Thom Andersen on Cinema* liburuaren aurkezpenarekin osatuko dugu, María Palacios Cruz koeditorearen eskutik.

AZAROAK 17 (ostirala)**18:00**

Liburuaren aurkezpena

Slow Writing: Thom Andersen on Cinema (45').**19:00****Los Angeles Plays Itself, (Lehen zatia)**, Thom Andersen, AEB, 2003, 90'.**22:00****Los Angeles Plays Itself, (Bigarren zatia)**, Thom Andersen, AEB, 2003, 80'.**FOKUAK**
VALIE EXPORT

Chantal Akerman, Birgit Hein, Ulrike Ottinger, Sra. Polaroida, Lizzie Borden, Deborah Stratman... emakume zinemagileen lanari egiten ari garen errepasoarekin jarraitzen dugu, haien ekarpena funtsezkoa izan baita zinemaren historian eta abangoardietan. Oraingoan zinema austriarrean giltzarria den egile bat ekarriko dugu: VALIE EXPORT. 60. hamarkadan Vienako testuinguru ekintzaileen hezitako artista eta zinemagilea. Arte feministaren barruan ezinbesteko izena, gerrilla performance eta ekintza zuzeneko ikus-entzunezko lanei esker.

Lau saioetan bere lan filmiko zein performatikoa berrikusiko dugu. Brigitta Burger-Utzer, Sixpackfilm zinema eta bideoarte banatzaile entzutetsuaren sortzaileak aurkeztuko du.

Xixoiako Nazioarteko Zinema Jaialdiarekin elkarlanean egingo den zikloa da, eta Feministaldiaren programaren barruan dago.

AZAROAK 28 (asteartea)**19:30**

♀ Z aretoa

1. saioa**Unsichtbare Gegner (Invisible Adversaries)**, VALIE EXPORT, Austria, 1977, 16mm, 110'.**ABENDUAK 3** (igandea)**18:00****2. saioa****Die Praxis der Liebe (The Practice of Love)**, VALIE EXPORT, Austria, 1984/85, 90'.**ABENDUAK 8** (ostirala)**19:00**

♀ Z aretoa

3. saioa: Performancefilms (68')**Selbstportrait mit Kopf (Self-Portrait with Head)**, VALIE

EXPORT, Austria, 1966/67, 4'.

TAPP und TASTKINO, VALIE

EXPORT, Austria, 1966/67, 4'.

Hauchtext: Liebesgedicht**(Breath Text: Love Poem)**, VALIE

EXPORT, Austria, 1970/73, 2'.

Raumsehen und Raumhören**(Space-Seeing - Space Hearing)**,

VALIE EXPORT, Austria, 1973/74, 6'.

Hyperbulie, VALIE EXPORT, Austria,

1973, 7'.

Delta. Ein Stück (Delta. A**Performance)**, VALIE EXPORT,

Austria, 1976/77, 18'.

...Remote...Remote..., VALIE

EXPORT, Austria, 1973, 16mm, 10'.

The voice as performance, act**and body**, VALIE EXPORT, Austria,

2007, 11'.

Mann & Frau & Animal**(Man&Woman&Animal)**, VALIE

EXPORT, Austria, 1970/73, 16mm, 8'.



ABENDUAK 9 (larunbata)

12:00

📍 Z aretoa

4. saioa: Film laburrak (61')

Adjungierte Dislokationen

(**Adjunct Dislocations**), VALIE

EXPORT, Austria, 1973, 10'.

i turn over the pictures of my voice in my head, VALIE EXPORT,

Austria, 2009, 12'.

Ein perfektes Paar oder die

Unzucht wechselt ihre Haut,

VALIE EXPORT, Austria, 1986, 12'.

Syntagma, VALIE EXPORT, Austria, 1983, 16mm, 18'.

Interrupted Line, VALIE EXPORT,

Austria, 1971/72, 16mm, 9'.

GUTUN ZURIAK PUNTO Y RAYA JAIALDIA

Japoniako prentsak "munduko zinema jaialdirik abstraktuena" dela ziurtatu zuen eta izan, bada. Punto y Raya Jaialdiak ikus-entzunezko esperimentazioa sustatzen du. Bertako filmetan agertzen diren elementuak formak dira, koloreak, mugimenduak eta soinuak. Izenburuak argi asko uzten du; hemen puntuak eta marrak dira oinarria!

2007 urtean sortu zuten eta bere promozioa sustatzeko 45 hirik osatutako sarea dauka, mugimenduan dagoen arte abstraktuaren eremuan erreferente bilakatu da Punto y Raya.

AZAROAK 3 (ostirala)

19:00

Programa honek azken PyR 2016 (Karlsruhe, Alemania) Jaialdian sarituak izan ziren lanak eskaintzen ditu. Gainera, hainbat artista euskaldunen lanekin osatuko da saioa; abstraktuaren mundutik datozenak eta eskuzko marrazketa zein bertako esentzia jasotzen dutenak.

MAD-ekoek (PyR Jaialdiaren sortzaileak) aurkeztuta gonbidatutako hainbat artisten parte hartzearekin.

MOSTRA INTERNACIONAL DE FILMS DE DONES DE BARCELONA

1993 urtean sortu zen jaialdia da. Emakume zinemagileen lana eta emakumezkoen ikus-entzunezko kultura bultzatzea du helburu. Aurten, 25. urteurrena ospatzen da eta Tabakaleratik Anna Solà, Marta Selva (ko-zuzendariak) eta Marta Nieto (programatzailea) gonbidatu ditugu, saioa aurkeztu dezaten.

AZAROAK 24 (ostirala)

19:00

No Home Movie, Chantal Akerman, Belgika, 2015, 115'.

ZINETIKA VIDEODANZA FESTIVAL

AZAROAK 25 (larunbata)

19:00

Tabakalerako zinemak dantza eta zinema uztartzen dituen nazioarteko jaialdi nafarraren bigarren edizioa hartuko du Gutun Zuriak programaren barruan.

Sail Ofizialeko lehiaketan parte hartzen duten filmak eta Open screen (kurtsiban) erakustaldi-atalean ikusgai izan direnak proiektatuko ditugu.

Laida Aldaz, jaialdiaren zuzendariak aurkeztu eta moderatuko du saioa.

XIXONGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA

1963 urtean sortu zen jaialdia. Hasiera batean, haur zein gazteentzako zineman jartzen zuten arreta.

80ko hamarkada erdialdean autore zinema edota zinema alternatiboan jartzen hasi ziren euren fokua; 90eko hamarkadarako zinema *indie*aren erreferente nagusi bilakatu zen.

Gutun zuri hau jaialdi honen zuzendariak aurkeztuko du; Alejandro Díaz Castaño. Ramón Lluís Bande, aukeratutako filmen zuzendaria ere gurekin izango da.

ABENDUAK 9 (larunbata)

19:00

Aún me quedan balas para dibujar, Ramón Lluís Bande, Espainia, 2017, 16'.

Escoréu (Pravia), 24 d'avientu de 1937. Crónica d'una exhumación, Ramón Lluís Bande, Espainia, 2017, 61'.



Zinetika Videodanza Festival



KAMALEOIAK GARA! ZINEMA

Hilabetean behin, ikuslego guztiarentzat aukeratutako filmak eskaintzen ditugu: animazio lanak, koloreak, familian ikusteko zinema, haurrentzako filmak, etab. Saio bakoitzaren ostean zinemarekin zerikusia duten gaiak lantzeko tailerrak egingo dira.

URRIAK 1 (igandea)

12:00 > Proiektzioa

12:45 > Aurreko proiektzioarekin zerikusia duen tailerra familientzako.

AZAROAK 5 (igandea)

12:00 > Punto y Raya Zinema

Jaialdiko zuzendariek egindako filmen aukeraketa ikusiko da.

12:45 > Aurreko proiektzioarekin zerikusia duen tailerra familientzako.

ABENDUAK 3 (igandea)

12:00 > Proiektzioa

12:45 > Aurreko proiektzioarekin zerikusia duen tailerra familientzako

+ *Info: Hezkuntza atalean, 49 or.*

HORMA

Horma Tabakalerako kubo-espazioa zuria da; hilabete osoan zehar *loop* formatuko emanaldian nazioarte mailako artistak gonbidatzen ditugu, haien lanak aurkeztuz pantaila publiko hau aktiba dezaten.

URRIA

A idade da pedra, Ana Vaz, Brasil-Frantzia, 2013, 29'.

AZAROA

Sibila, Carla Andrade, Espainia, 2017, 9'.

ABENDUA

The I mine, Emilio Moreno, Espainia-Herbehereak, 2017, 27'.

LABORATEGIAK PROGRAMAZIO TALDEA

Ikasturte berriari proiektu berri batekin ekingo diogu. Ikus-entzunezko ikerketarekin zerikusia duen proiektua da, programazio lanen inguruan ideiak elkarbanatzeko, hausnarketak egiteko, irakurketa eta elkarriketak partekatzeko balio duena.

Ikus-entzunezko praktikak eta feminismoaren arteko hartu-emanak aztertuko ditugu lehen urte honetan. Zein da zinema feministaren historia? Zeintzuk dira zuzendariak? Eta izenburu azpimarragarrienak?

Proiektu honen lehen fasean zinema programazioaren jarraipen hurbil bat egingo da eta hainbat pelikula eta gonbidaturen inguruan lan saioak antolatuko dira. 2018an taldea programatzen hasiko da, lan saioetan adostutako pelikulak zinema aretoan aurkeztuz.

Lan-talde hau proiektu ireki bat da, jarrera parte-hartzailea eta zineman interesa duen edonork hartu dezake parte; ikus-entzunezkoen programazioan eta feminismoan jakin-mina duen orok. Izen-ematea urriaren 2an irekiko da Tabakaleraren webgunean.

Lehen saioa:

AZAROAK 25 (larunbata)

12:00 > Lantegia

Anna Solà, Marta Selva (zuzendariak) eta Marta Nieto (programatzailea), Mostra Internacional de Films de Dones de Barcelona jaialdiko lantaldearekin.

PROIEKTUAK ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS

Zinema (H)abian / Cinema en Curs A Bao A Qu kultura elkarteak sortutako proiektu pedagogikoa da. Eskola zein institutuetan burutzen da 2005-2006 ikasturteetik. Katalunian sortu zen, egun, lehen zein bigarren hezkuntzako zentru publikoetan garatzen da, Katalunia (23 zentro), Galizia (5 zentro), Madril (3 zentro), Berlin (2 zentro), Branderburgo (3 zentro) eta Txile (7 zentro).

Hezkuntza testuinguruan sorkuntza zinematografikoak duen indar pedagogikoa garatzea da jomuga; haur eta gazteek zinema aurki dezaten. Zinema arte, sorkuntza eta kultura gisa ulertuta.

Programak bi ardatz nagusi dauzka: zinemagileen presentzia, ohikoa eta jarraia, hezkuntza zentroetan irakasleekin batera lantegiak eskaintzen dituzte eskola ordutan alde batetik, eta arte zinematografikoaren aurkikuntza, sorkuntza praktika eta pelikulak ikusteko aukera lotzen dituen pedagogiaren bidez bestetik.

Proiektua sortu zenetik 30.000 haur eta gaztek baino gehiagok hartu dute parte; 3 urtetatik 18 urterarte. Zinemaren munduko 20 adituk hartu dute parte, haien artean, Carla Simón, Jonás Trueba, Ángel Santos edo Nely Reguera, besteak beste eta gainera, 80 irakasle. 190 hezkuntza zentruarekin baino gehiago egin dute lan, 3500 irakasle baino gehiago formatuz.

Euskadin proiektu hau A Bao A Qu, Tabakalera, Elías Querejeta Zine Eskola eta Euskadiko Filmategiaren artean jarriko da martxan.

Lehen urte honetan, Gipuzkoak bat egingo du proiektuarekin *Zinema (H)abian / Cinema en Curs* ekimena garatuko duen hezkuntza zentro bat eta gonbidatutako zuzendari batekin. Lasarteko Oriarte BHI ikastetxea eta Mikel Gurrea zinemagilea izango dira parte hartzaileak hurrenez hurren.

/FRONTERAS

PROGRA- MA PU- BLIKOAK

Aurkibidea

MUGAK/FRONTERAS

IKUSPUNTUAK ETA KOSMOPOLITIKA

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: GEOGRAFIA ETA
BOTERE MOTAK

BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA MUGIMENDUA

SUPRASENSORIAL VS SUBSENSORIAL

KEAREN POLITIKAK

FEMINISTALDIA

EUSKADIKO I. NAZIOARTEKO ARKITEKTURA BIENALA



MUGAK/FRONTERAS

Maite Garbaya Maeztu ikerlaria 2017 urtean zehar *Mugak/Fronteras* proiektua garatzen ari da, Tabakalerak eta DSS2016EU-k, pasa den urtean martxan jarri zuten ikerketa artistikoko egonaldieren bigarren edizioaren barneko ekimena. Deialdi honen helburua gizartearen eta praktika artistiko garaikideen arteko lotura duten proiektuetan ikerketa prozesua bultzatzea da.

Mugak/Fronteras proiektuak mugaren kontzeptua birpentsatzea bilatzen du praktika artistiko, idazketa-praktika eta bertako zein kanpoko mugetako lurraldeetan agertzen diren kultur adierazpenetatik (kultura bisuala eta herrikoia) abiatuta.



Borderlands - Leire Urbeltz

URRIAK 5 (osteguna)

Esku-hartzea

BORDERLANDS

Leire Urbeltz

19:00

📍 Sortzaileen gunea

Borderlands paper xehatu mexikarrean (bere erabilerak aro prehispaniarrean dauka jatorria) oinarritutako proiektu bat da. Urbeltzek munduko muga handienetako batean, hau da, Mexiko eta AEBtako mugan dagoen gatazkaren inguruan gogoeta egiteko gonbidapena luzatzen digu, eta horretarako elementu eta esperientzia pertsonal ezberdinak hartzen ditu abiapuntu. Mugaren eta aldatetaren testuinguruarekin zerikusia daukaten pertsonaia ezberdinak dira lan honen protagonistak. Las Flacas kartelego emakume sikarioak edota Las Gladys edo “neska gaiztoen” irudia duten Las Pachucas bezalako pertsonaia azaltzen dira lan honetan.

AZAROAK 15 (asteazkena)

Esku-hartzea

HOTS HIRU AHOTS BAKARREAN

Itxaro Borda

19:00 EU / ES / FR

📍 Sortzaileen gunea

Mugak/Fronteras proiektuaren baitan Itxaro Bordak idatzitako testu berri bat aurkeztuko da.

“Isiltasunean pentsatzen hasten garenean, dakizkigun hizkuntzak nahasten zaizkigu garunen meandroetan. Ez dugu ezer kontrolatzen. Gure desioak, nahikundeak, borondateak ez du indarririk buru zokoan sortzen den nahasmendu linguistikoko hori muga finkoetan atxikitzeko. Zer gertatzen da aldi berean merde frantsesez pentsatu eta eman dezagun schiesse alemaneraz ahoskatzen dugunean?”

AZAROAK 17 (ostirala)

Aurkezpena

'LAS BUENAS COMPAÑÍAS' FILM LABUR-DOKUMENTALA

Bertha Gaztelumendi, Nuria Canal eta
Arantza Olañeta (Memorandra)

20:00 EU / ES

📍 Sortzaileen gunea

1976an, Estatuan 350 emakume zeuden kartzelan adulterio, aborto eta prostituzio delituengatik eta beren amnistia izan zen garai hartako mugimendu feministaren errebindikazio garrantzitsuenetako bat. Urte hartan bertan Basaurin 10 emakume eta gizon bat atxilotu zituzten, abortatzeagatik edo abortuak praktikatzeagatik. Horren aurrean, Errenteriko feminista talde bat antolatu egin zen abortatu nahi zuten emakumeei muga zeharkatzen laguntzeko. Nuria Canal eta Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Las*



Las Buenas Compañías

Buenas Compañías dokumentalak gure memoria feministaren zati bat errekerperatzen du.

ABENDUAK 14 > 16

(osteguna > larunbata)

Mintegia

MUGAK/FRONTERAS

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Z Aretoa

Aurretik izena emanda publikoarentzako irekita dagoen topaketa honetan, Estatuko eta nazioarteko testuinguruetako gonbidatu ugari bilduko dira mugaren kontzeptuaren eta muga pentsamenduaren inguruan hausnarketa egiteko. Mintegi hau *Mugak/Fronteras*en, Maite Garbayo Maeztu 2017 urtean garatzen ari den proiektuaren, itxiera gisa planteatzen da.

• **Abenduak 16** - Esku-hartzea

ALFABETO MUGIKORRA - Ion Munduate

19:00

📍 Z Aretoa

Ekintza hau errebelazio-prozesu baten antzera proposatzen da. Mugan bertan eta honen inguruan dauden gertakari eta dinamikien barruan aurkitzen diren elementu material eta immaterialen agerpena bultzatzeko espazio gisa. Mugimenduan dagoen alfabeto baten irakurketan oinarritzen da esku-hartze hau, eta gure mugan bizi diren hiru hizkuntzetatik abiatuta aldi baterako egoera bat sortu nahi du.



IKUSPUNTUAK ETA KOSMOPOLITIKA

UPV/EHUko Antropologia Sozialeko Masterrarekin elkarlanean garatutako mintegi eta lantegien programa. Helburua da natura deituriko mundu bakar eta originala kudeatzeko mendebaldeko munduaren balio unibertsala eta autoritatea kolokan jartzen dituen master honen edukiak Tabakalerara ekartzea.

URRIAK 3 (asteartea)

Mintegia + Hitzaldia

EZOHIKOA IKUSI. BEGI AMESLARIAREN ISTORIOAREN APUNTEAK

Ander Gondra Aguirre, Gorka López de Munain

15:30 - 17:30 > Mintegia. Izen-ematea alde zurreretik

18:00 > Hitzaldi irekia

📍 Sortzaileen gunea

Ander Gondra Aguirre antropologo bisuala da eta Gorka López de Munain arte historialaria. 2013an *Sans Soleil edizioak* deituriko proiektu editoriala hasi zuten eta gure inguruko kultura bisual konplexuaren inguruko 50 titulu argitaratu dituzte jada.

AZAROAK 22 (asteazkena)

Mintegia + Hitzaldia

PLURIBERTSOA: ANTROPOZENOAREN ONTOLOGIA POLITIKOAREN APUNTEAK

Mario Blaser

15:30 - 17:30 > Mintegia. Izen-ematea alde zurreretik

18:00 > Hitzaldi irekia

📍 Sortzaileen gunea

Mario Blaser, antropologo eta Kanadako Memorial University-ko irakasleak, Paraguaiako Chacoko Yshir herriarekin eta, berrikiago, Labrador penintsulako Innu-ekin lan egin izan du. Geroz eta handiagoak diren ezberdintasunekin eta ingurugiroaren krisiarekin arduratuta, mundu aborigenen eta estatua, zientzia eta desarrollismoa bezalako erakunde modernizatzaileen arteko harremanak ikertzen ditu.

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK: GEOGRAFIA ETA BOTERE MOTAK

Blanca Pujals, Léopold Lambert

2013an jarri zen abian *Hiria eta bestelako politikak* eta gobernu ekintza eta estrategien eta publikoa den horren gaineko kontrolaren atzean dauden politikak etengabe zalantzan jartzea du xede proiektuak, bai hiriaren bai lurraldearen dimentsioa eta gaitasun politikoa azpimarratuz.

Hurrengo bi urteetarako bere horizonte programatikoak lurraldea zehazten duten distortsio eta indarkeria dispositiboen funtzionamendua, forma eta mekanismoak mugatu nahi ditu, honela, botere formetan oinarritutako praktika espazialak arazo gisa aztertzeke.

URRIAK 6 (ostirala)

Aurkezpena + hitzaldia

GORPUTZ KARTOGRAFIAK

Blanca Pujals

19:00 ES / EU

📍 Z aretoa

Blanca Pujals komisarioak *Cartografías corporales* deituriko hitzaldia emango du *Hiria eta bestelako politikaren* edizio berria aurkeztu ondoren.

URRIAK 7 (larunbata)

Hitzaldia

ARMA BILAKATUTAKO ARKITEKTURA

Léopold Lambert

12:00 ES / EN

📍 Z aretoa

Arkitekturaren arma politiko gisako instrumentalizazioaren inguruko analisia egingo du Lambertek.

URRIAK 7 (larunbata)

Lantegia

GORPUTZEN ETA ESPAZIOEN POLITIKA

Léopold Lambert

15:30-19:30 ES / EN

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Z aretoa

BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA MUGIMENDUA SUPRASENSORIAL VS SUBSENSORIAL. BIGARREN SINODO PSIKODELIKOA

Mintegi hau *Bizigarriak*: zirkulazioa eta mugimendua proiektu artistikoaren parte da. Bertan, mugimendu psikodelikoaren inguruko hausnarketa bat egiten da ikuspegi kritiko batetik. Nola egin ahal diezaiekegu aurre nozio honek planteatzen dizkigun erronkei? Ordena perzeptiboan egin beharreko aldaketei erreparatuta, zer ikas dezakegu?

Laguntzailea: Danish Art Foundation.

URRIAK 31 (asteartea)

Performancea

LUMAK

Ion Munduate

19:00

📍 Ganbara

“Nola antzematen dugu gauzen iraupena eta denbora?” galderaren inguruan garatutako performancea eskainiko du Ion Munduatek mintegiaren sarrera gisa.

AZAROAK 2 (osteguna)

Aurkezpena

MINTEGIAREN AURKEZPENA

Lars Bang Larsen, Pia Lindman

19:00 ES / EN

📍 Z aretoa



AZAROAK 3 > 4 (ostirala > larunbata)

Lantegi teorikoa

DROGEK EZ DUTE FUNTZIONATZEN. EFEKTUEN ESTETIKA ETA JAKINTZAREN ERABILERA OKERRA

Yann Chateigné, Lars Bang Larsen

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 ES / EN

Izen-ematea aldeaz aurretik

📍 Z aretoa (ostirala), Sortzaileen gunea
(larunbata)

AZAROAK 3 > 4 (ostirala > larunbata)

Masajeak

HEZUR LERROKAKETA TERAPIA

Pia Lindman

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 ES / EN

📍 Sortzaileen gunea

Pia Lindman artista finlandiarrek hezurren lerrokaketarako tratamenduak emango ditu. Bigarren egunean, Lindmanek tratamenduaren ebaluazioaren berri emango du mintegiaren testuinguruan.

AZAROAK 3 (ostirala)

Performancea

LUMAK II

Ion Munduate

20:30

📍 Ganbara

KEAREN POLITIKAK

AZAROAK 26 (igandea)

Hitzaldia, antzerkia, kontzertua

HERETIKOAREN ALABA

Ander Lipus, Kanthoria, Ander

Berrojalbiz

18:00 EU

Sarrerarekin.

📍 Z aretoa

Durangoko heresiaren inguruan gogoeta egiten duen ekitaldi bat aurkezten digu *Kearen politikak* programak. Joseba Sarrionandiaren ipuin batetik abiatuta, Ander Lipusen parte-hartzearekin eta Kanthoriaren musikarekin iraganera salto egiteko momentu ezinhobea izango dugu Tabakalera.

FEMINISTALDIA

AZAROAK 27 > ABENDUAK 3

(astelehena > igandea)

Jardunaldiak

FEMINISTALDIA XII

#FOBIA

Gonbidatuak: *Gitanas Diversas, Fabiana*

Faleiros, Isa Calderón, Inma Hurtado.

Antolatzailea: Plazandreak

📍 Z aretoa

Aurten fobiaren ideiarri helduko diogu *Feministaldiaren* XII. edizioa ospatzeko. Astebetetz, aurkezpen, eztabaida, proiektzio eta ekitaldi ezberdinek testuinguru zabal bat ezarriko dute, “beste horri” diogun beldurrari buruz hitz egin eta pentsatzeko. Zergatik izan eta sustatu beldurra desberdinarekiko, okerrarekiko, arautik kanpo bizi denarekiko, arraroarekiko?

+ Info: *Hezkuntza atalean, 52 or.*

EUSKADIKO I. NAZIOARTEKO ARKITEKTURA BIENALA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak bienal hau lehenengo aldiz antolatzen du. Proiektu honek jarraitzeko bokazio dauka eta arkitekturaren inguruko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi ditu.

Tabakalera kolaboratzaileetako bat denez, udazkeneko hilabeteetan zehar garatuko diren hainbat ekimen antolatu ditu.

AZAROAK 9 (osteguna)

Esku-hartzea

PERNILLE WITH MADSENEN ESKU-HARTZEA

Pernille With Madsen

19:00

📍 Tabakalera

Pernille With Madsenen obraren ardatz nagusiak disoluzioa, desoreka, desorientazioa, lur-jotzea eta galera dira. Bideo, argazki, marrazki eta instalazioaren bidez, With Madsenek ikuslearengan nahasmen espaziala eragiten duten ezinezko esperimenduak sortzen ditu behin eta berriz.

Artista danimarkarrak Tabakalera udazkenean bisitatuko eta eraikinean esku-hartze espezifikoa bat egingo du.

ABENDUAK 1 (ostirala)

Esku-hartzearen inaugurazioa

MIREN DOIZEN ESKU-HARTZEA

Miren Doiz

19:00

📍 Tabakalera

Tabakalera eraikina barrutik aktibatzeko asmoa duen artisten esku-hartzeen programa abian da. Eraikineko txokoetan Tabakalera beste begi batzuekin begiratzeko aukera emango digu.

Jerónimo Hagerman artistaren *Malas madres* inauguratu ondoren (+ info: 18 or.), Miren Doiz artista izango da hurrengo esku-hartzearen egilea. Bere instalazioa hainbat hilabetez bisitatu ahal izango da.

+ Info: Zinema programa (26 or.) eta Hirikilabs lantegia (43 or.).





HIRIKILABS


HIRIKILABS PLAZA

HIRIKI- LABS

Aurkibidea

JOLABS
HIRIKIKAS
TOPAKETAK
HIRIKILABS PLAZA

*HIRIKILABS. KULTURA DIGITALA ETA
TEKNOLOGIA LABORATEGIA.*





JOLABS

URRIAK 7, 21, 28; AZAROAK 4, 18, 25;

ABENDUAK 2 (larunbata)

Lantegia

DO IT IN FAMILY III

10:00 - 13:00 EU + ES / Adina: + 6 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Hirikilabs

Familiartean elkarrekin proiektuak gauzatzeko zita bilakatu da *Do it In Family*. Diseinua, fabrikazioa, elektronika edo oihalgintza lantzerako orduan laborategiak eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta sormenari lekua utziko diogu familia bakoitzak gustuko duen eremuan proiektuak sortzeko.

JOLABS EKIN!

Hirikilabsen atsegin dugu egitea, atsegin dugu ikastea, ezagutzen ez duguna deskubritzea eta jakin mina sortzen diguten gauzekin esperimintatzea. *Jolabs - Ekin!* lantegietan 8 eta 14 urte bitarteko neska mutilekin teknologia, zientzia, ikasketa partekatua, diseinua eta fabrikazio digitala lantzen ditugu.

URRIAK 27 (ostirala)

Lantegia

JOLASAK ERAIKITZEN

Gorka Segurola Dorronsoro

17:30 - 19:30 EU / Adina: 8 - 14 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Hirikilabs

Arkitektura munduan murgilduko gara eta eraikuntza-jolasak sortuko ditugu. Barra eta lotune ezberdinekin saiakerak egingo ditugu, hauek oinarri hartuta egitura espazialak eraiki ahal izateko.

ABENDUAK 1 (ostirala)

Lantegia

JOLASAK MARTXAN!

Gorka Segurola Dorronsoro

17:30 - 19:30 EU / Adina: 8 - 14 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Hirikilabs

Elektronikarekin esperimintatzeko jolas bat sortuko dugu. Elektronikaren oinarrizko elementuak aztertuko ditugu, hots, gure jostailuen barnean zer ezkutatzen den eta hauek nola funtzionatzen duten ikertu. Motoreak, etengailuak, erresistentziak eta argiak bezalako materialez baliatuz, mahai-joku baterako materiala sortzeko gai izango gara.

HIRIKIKAS

URRIAK 3, 4 (asteartea, asteazkena)

Lantegia

SOLDADURA ESTAZIOAREN AKTIBAZIOA

Rocco Roncuzzi

17:00 - 20:00 ES / Adina: + 16 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Hirikilabs

Soldaduran lehen urratsak emateko xedearekin, MMA (ohiko elektrodoarekin) eta TIG (Tungsten Inert Gas) teknikak erabiltzen ikasteko lantegia antolatuko dugu. Era horretan, Tabakalerako biltegian kokatuta dagoen soldadura estazioa aktibatuko dugu.

URRIAK 10, 17 (asteartea)

Lantegia

SENTSORE HIRITARRAK ETA LORA SAREAK*Unai Gorrotxategi***17:00 - 20:00 EU** / Adina: + 16 urte

Izen-ematea alde aurretik

📍 Hirikilabs

LoRa (potentzia baxuko eta hedapen zabaleko) sare bat martxan jartzeko beharrezko pausuak ikusiko ditugu lantegi honetan, *gateway* baten konfiguraziotik hasi eta sentsore ezberdinen konexioak egitera heldu arte. Sare mota hauek *Internet of Things* delakoaren teknologien artean koka ditzakegu eta *Smart City* -gaur egun gurea egin dugun terminoa, horrek dakarren logika eta karga ideologikoaren zamarekin- harreman zuzena dute. Aldiz, hiritartasun kritiko batean oinarrituz hiri eredu komun baten eraketa ahalbidetzeko, teknologiez jabetu eta hauetaz baliatzeko aukera inoiz baino handiagoa da.

URRIAK 24, 25 (asteartea, astezkena)

Lantegia

FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: LASER MOZKETA**17:00 - 20:00 ES** / Adina: + 16 urte

Izen-ematea alde aurretik

📍 Hirikilabs

Laser mozketa material ezberdinen mozketa egiteko erabiltzen den teknika da. Laser potentzia altua biltzen du lan egingo duen materialaren azaleran. Sortutako izpia materialera bideratzeko laser optika eta konputagailu bidezko zenbakizko kontrola (CNC) erabiltzen ditugu. Bere doitasun eta erabiltzeratasuna direla-eta, erabilera anitzeko tresna da laborategian. Lantegian makinaren erabilpena eta mozketarako diseinuak prestatzeko softwarea erabiltzen ikasiko dugu.

EUSKADIKO I. NAZIOARTEKO ARKITEKTURA BIENALA

AZAROAK 6 > 9 (astelehena > osteguna)

Lantegi-Topaketa

DISEINU IREKIA ETA FABRIKAZIO DIGITALA**17:00 - 20:00 ES** / Adina: + 16 urte

Izen-ematea alde aurretik

📍 Hirikilabs

Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienalarekin bat eginez, arkitektura, diseinua, diseinu industrial, maker praktikak eta DIY/DIWO diziplinartekotasuna eta fabrikazio digital espazioetako tresnak eta ezagutza partekatze moduen mugak arakatzea helburu duen ekitaldi-programa antolatu dugu. Hitzaldi eta esperientziez gain, fabrikazio digitala eta diseinu irekiarekin esperimentazioan oinarritutako lantegi praktikoa eskainiko ditu topaketak.

AZAROAK 14, 15, 21, 22, 28, 29

(asteartea, astezkena)

Lantegia

DIY SOUNDSYSTEM*Ibai Areitio***17:00 - 20:00 ES** / Adina: + 16 urte

Izen-ematea alde aurretik

📍 Hirikilabs

Sei saioren buruan soinu ekipo edo *Soundssystem* bat eraikitzen ikasiko dugu berrerabilitako materialekin zein elementu berriak abiapuntutzat hartuz, hala nola, bozgoragailuak, aplikadoreak edo kotxe bateriak. DIY audio ekipoa garatzea soinu analogikoaren oinarriak eta soinu-uhinen jokaera ikasteko guztiz aproposa da. Banako bozgoragailuak nola egin ikasi eta erabilera komunitarioa izango lukeen lagapenerako *Soundssystem* modeloa eratuko dugu.

TOPAKETAK

URRIAK 3 > 6 (asteartea > ostirala)

Topaketa

AGUR #CASEANDO

Grupo Abierto Textil + Amara Montes

17:00 - 20:00 EU + ES / Adina: + 10 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Hirikilabs

VIC (Vivero de Iniciativas Ciudadanas) ekimenak sortutako #Caseando gailua urtebetez izan da gure artean. Plazan hasiera batean, Hirikilabseko pasarelan azken hilabeteetan. #Caseando elkartzeko tokia bilakatu da, topaketarako testuingurua, arkitektura zurrun baten baitan espazio malgua. Saio hauen bitartez, eta ehungintza talde irekiarekin elkarkanean, Tabakalera eta Hirikilabseko erabiltzaile-komunitatearen aniztasuna islatuko duen #Caseandoren kontaketa eratu nahi dugu.

AZAROA 9 > 11 (osteguna > larunbata)

Topaketa

ZIENTZIA ASTEA

📍 Hirikilabs

Europar Batasunak sustatutako Zientzia Astea gizartearen eta zientziaren eta teknologiaren arteko zubiak lantzea helburu duen ekimena da. UPV/EHUk antolatuta, Donostiako egoitza Tabakalera izango da astronomia ardatz izango duen 2017ko edizioan. Testuinguru honetan, laborategiko astronomia komunitatearen lana bistarazteko ekimenaz gain, zientzia hiritarraren kontzeptuaz eta autodidaktak zein amateurren ekarpenei buruz hausnartzeko jarduerak eta hitzaldiak antolatu ditugu.

AZAROA 17 (ostirala)

Topaketa

GEOMATIKA TOPAKETA

8:30 - 17:30 EU / Adina: + 16 urte

Izen-ematea aldez aurretik (ueu.eus)

📍 Hirikilabs

Udako Euskal Unibertsitatea eta Gislán-en eskutik datorkigun topaketa honetan datuak hiritarrentzako informazio erabilgarrian bilakatzeko teknologia ere badela ezagutuko dugu. GIS (geografia-informazioko sistema) akronimoarekin ezagutu ohi da teknologia mota hau.



Eginzaleak! 2017

ABENDUAK 12 > 16 (asteartea > larunbata)

Topaketa

EGINZALEAK! 2017 TEKNOLOGIA ETA FABRIKAZIO DIGITALAREN 5. ASTEA

Asteartetik ostiralera: 17:00 - 20:00

📍 Hirikilabs

Larunbata: 10:00 - 14:00 + 16:00 - 20:00

📍 Patioa

Eginzaleak! topaketa fabrikazio digitala, diseinua, hardware garapena, kodearen erabilpen berriak... bezalako teknologi anitzetan, hiritarrek egiten dituzten erabilerak lotzen dituen jarduera ezberdinak batzen ditu. Eremu guzti hauek irekiak, artisauak, kolaboratiboak eta zeharkako diren praktiken ondorio dira eta Hirikilabs, Tabakalerako kultura digital eta teknologia hiritar laborategiaren erabiltzaile-komunitatearen egiteko eraren isla da.

Eginzaleak! astean zehar, eginez pentsatzeko modu honetan murgiltzeko eta ulertzeko jarduera ezberdinak izango dira. Eta larunbatean, proiektu eta proposamen ezberdinak biltzen dituen azoka egingo dugu, publikoari irekia, edonork teknologia eskura duenean sormenerako zein gizartearekin lotuta irekitzen diren aukerak ikusita gure irudimena piztuko duena.

HIRIKILABS PLAZA

URRIAK 5 (osteguna)

Aurkezpena

HIRIKILABS PLAZA VIII: PROIEKTU IREKIEN AURKEZPEN PUBLIKOA

18:30 EU + ES

📍 Hirikilabs

Kolaboratzaile bila dabiltzan teknologia edota kultura digitalarekin zer ikusia duten proiektu irekien aurkezpen publikoa. Aurkezpenaren ostean, interesatuen artean lantaldeak osatuko dira eta hauek datozen hilabeteetan ostegunero bilduko dira aukeraturako proiektuak garatzeko. Ekitaldi honetan, 8. deialdi publikoan izena emandako proiektuak aurkeztuko dira.

URRIAK 19, 26; AZAROAK 2, 9, 16, 23, 30 (osteguna)

Lan saioa

HIRIKILABS PLAZA VIII: PROIEKTUAK GARATZEKO LAN SAIOAK

16:00 - 20:00 EU + ES

📍 Hirikilabs

Hirikilabs Plaza pertsonen, kolektiboen eta testuinguruko praktika-komunitateen artean elkarlanean proiektu irekiak garatu eta topatzeko lekua da. Beste pertsonekin bildu, ikertu, partekatu eta laborategia erabiltzeko uneak bilatzen ditugu, Hirikilabseko tresna eta baliabideak lantegi ireki moduan erabiltzeko, elkarrekin jendearen sormen ideiak garatuz eta DIY izatetik (zuk zeuk egin ezazu) DIWO izatera (besteekin egin ezazu) pasa daitezten. *Hirikilabs Plazan* urtean bi deialdi zabaltzen dira, partehartzaileak diren prozesuak proposatuz. Oraingo honetan, zortzigarren deialdira aurkeztutako proiektuak garatzeko xedearekin bilduko gara ostegunero.



PEQUEÑA MAX, Compañía Arena en los bolsillos

HEZKUN- TZA

Aurkibidea

KAMALEOIAK GARA

- PROGRAMA
- ZINEMA
- ERAKUSKETAK

HEZKUNTZA-KOMUNITATEA

- LANTEGIAK
- REC
- ELKAR-EKIN
- IRAKASLE PROGRAMA

0-6 BIZI!

HIRIA HACKEATU

ZOOM

HARROTU ILEAK

ARCHIVERAS



KAMALEOIAK GARA!

Kamaleoiak gara! haurrek eta helduek elkarrekin arte garaikidearen inguruan goza dezaten jarduera programa bat da. Tabakalera elkarrekin bizi, jakintzak partekatu eta belaunaldien arteko komunitate baten ikasi nahi duten amak euren seme-alabekin, aitak ilobekin, bilobak amonekin...etortzera animatzen ditugu.

KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0-99

URRIAK 21 (larunbata)

Antzerkia

MANS

Fes-t'ho com Vulguis

17:00 (40') - Elkarriketarik gabe

Adina: 0 - 5 urte

Izen ematea aldeztu aurretik

📍 Z aretoa

Mans (eskuak) irudimena eta zentzumenak esnatzen dituen ikuskizuna da. Fikziozko eta errealitatezko munduetan barrena bidaiatzera gonbidatzen gaitu. Amets egitera. Entzutera. Barre egitera.

Ikuskizuna eskuen ideia inguruan sortu eta garatzen da. Eskuek gure errealitate propioak sortzeko aukera ematen digute.

AZAROAK 4 (larunbata)

Txotxongilo eta objektu antzerkia

PEQUEÑA MAX

Compañía Arena en los bolsillos

17:00 (30') - Elkarriketarik gabe

Adina: 1-4 urte

Izen ematea aldeztu aurretik

📍 Z aretoa

Max bakarrik bizi da, mundutik isolatuta, bere zorientasuna besteen begirada kritikotik at bilatzen saiatzen da. Izan ere, Max "desberdina" da, hegats oin batekin jaio zen. Bere mundu propioa eraiki zuen, erdi erreala - erdi asmatua, eta hura bere babesleku bihurtu zuen. Mundu txiki eta hauskor horretara kanpotar bat iritsiko da ordea, eta benetan inoiz ez zuela bakarrik egon nahi izan konturatuko da.

ABENDUAK 23 (larunbata)

Ipuinak eta irudiak

RETRO IPUINAK

Miren Larrea

17:00 (45') EU / Adina: +5 urte

Izen ematea aldeztu aurretik

📍 Z aretoa

Familia osoari zuzendutako saioa dugu *Retro ipuinak*. Miren Larrea antzerkilari eta ipuin kontalariaren eskutik, ipuinak entzun eta ikusteko aukera ere izango dugu. Izan ere erretroproiektore zahar baten laguntzaz kolorez eta irudiz osatuko dira abenturazko kontaketak.

KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 5-99

Hilean behin, igandez, film laburrez osatutako saio bat eskaintzen dugu zinema-aretoan, eta ondoren ikusitako horretan jorratu diren gaien eta tekniken inguruan lan egiteko lantegi bat.

Udazkeneko lantegietan marrazkian zentratuko gara (puntu eta lerroan) gure animazioak egin eta esperimintatzeko *flipbook*-ak sortuz, *hilotz surrealista* taldean eraikiz, zeluloidean esku hartuz edota gure marrazkiei *stop motion*-aren bitartez bizia emanez.

URRIAK 1, AZAROAK 5, ABENDUAK 3
(igandea)

Proiektzioa + lantegia

Proiektzioa: 12:00 / Zinema sarrera, eserleku guztiak bete arte

Lantegia Aitor Gametxorekin: 12:45 EU
/ Izen-ematea alde zuzenetik, gehienez 25 pertsona

📍 Zinema. 1 aretoa

KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETAK 5-99

Lantegi hauen bitartez jolasa, ibilbideak eta parte hartzea sustatuz erakusketa aretoetan dauden arte piezak, objektuak eta diskurtsoak era dinamikoan aktibatzea proposatzen dugu.

AZAROAK 18, ABENDUAK 16 (larunbata)

Lantegia

IKUSI MAKUSI

11:00 - 12:30 EU / Adina: + 5 urte

Izen ematea alde zuzenetik *

📍 Erakusketa aretoa

Calé, calé, cale! Caale!!! erakusketarekin zerikusia duten magiarekin, erritoarekin eta irrazionalaren ideiarekin lotutako gaiak landuko ditugu. Ikusten dugunaren eta ikus ezina denaren ideiekin jolastuko gara eta material ezberdinekin esperimintatuz gure mezu propioak sortu eta erakusketan ezkututzen diren beste batzuk azalaraziko ditugu.

*Izen-emateko azken eguna ekintzaren aurreko ostiralean izango da. Taldea osatuko ez balitz, ekintza bertan behera geratuko litzateke.



HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Hezkuntza zentroei, elkarteei eta helduen hezkuntza taldeei zuzendutako programak.

ERAKUSKETEKIN LANTEGIAK

Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergoa, LH, unibertsitateak eta elkarteak.

2017/2018 ikasturtea.

Asteazkenetik ostiralera

10:00-14:00 / 16:00-18:00 - Lantegien

iraupena: 2 ordu gehienez

Pertsona kopurua: 25 taldeko (gehienez 2 taldealdi berean)

Izen-ematea aldeaz aurretik

Lantegi hauek Tabakalerako erakusketetara lehen hurbilpen bat egitea ahalbidetzen dute. Saio dinamikoaren bidez taldearen parte-hartzea eta elkarrizketa sustatuko dira eta erakusketako edukiak modu praktikoan lantzeko tailerra proposatuko da.



ELKAR-EKIN

URRIAREN 15A ARTE

Lantegia

ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN ROQUELLO ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA

Ikus-entzunezkoek duten boterean sakonduko dugu, ondoren argazki eta bideoen bidez fikzio narrazioak sortzeko. Zein egia sortzen dute irudi hauek? Egiatzko itxura duten fikzioak sortzen ditugu?

AZAROA, ABENDUA, URTARRILA

Lantegia

CALE, CALE, CALE! CAALE!!!

Cale, Cale, Cale! Caale!!! erakusketarekin elkarrizketan, magiari, errietoari eta irrazionalari lotutako gaiak landuko ditugu. Zein ezagutza hartzen dira baliagarritzat eta zeintzuk ez? Nola sortu ditzakegu autoerretatuak magiatik eta errietoik abiatuta?

AZAROA, ABENDUA, URTARRILA

Lantegia

HOT IRON. MARGINALIA

Adrià Julià-ren *Hot Iron. Marginalia* erakusketak ekonomia, turismoa, kirola etab. gaitzat hartuta, egungo gizartearen inguruko hausnarketa bat planteatzen du. Merkatua, memoria, lurralde kulturala eta irudikari herrikoiak beren artean nola erlazionatzen diren aztertu nahi duen ikerketa bat da erakusketa.

HEZKUNTZA EZAGUTU

Hezkuntzan interesa duten taldeentzako.

Praktika artistikoa mundua modu berrietan begiratu eta bertan eraikitzeko esparru paregabea da. Gure egitekoan pedagogia kritiko, feminista eta kritika kulturaletik datozen proposamenekin lan egiten dugu. Ezagutza kolektiboa eraiki eta elkarlana sustatzeko moduak bilatzen ditugu. Saio honetan arte-hezkuntzan (unibertsitatea, irakasleak, ikasleak ...) interesa duten taldeak gure lan metodologia eta planteamenduak partekatuzera gonbidatzen ditugu praktika eta dinamika ezberdinen bidez.

REC: ZINEMA ESPERIMENTALA

3. eta 4. DBH, LH eta Batxilerr taldeentzat.

Saio kopurua: 4

Tabakalerako saioen iraupena: 2 ordu gehienez. / Institutoko saioen iraupena: taldeko arduradunarekin adostuko da. Izen-ematea aldez aurretik

*Rec: zinema experimental*a programaren helburua, ikus-entzunezkoa ikasteko-tresna modura lantzea da, norberaren auto-irudikapena eraiki eta ikustarazteko orduan. Lau saiotan banatuko da eta zinema experimental ardatz harturik, arraza, sexua, identitate sexuala edo ideologia bezalako gaiak jorratuko ditugu film laburren proiektzio, eztabaida eta praktikaren bitartez.

ELKAR-EKIN. EPE ERTAINEKO PROGRAMA

Donostialdeako hezkuntza komunitate, ikastetxe eta elkarte taldeei zuzendua.

Ikasturtean zehar / Datak eta ordutegiak: Taldeko arduradunarekin batera definitzeko.

Iraupena: 5 saio. 2 bilera (diseinua eta ko-ebaluazioa), eta taldearekin 3 saio. Bilerak eta saioak hilabeteko epean burutuko dira. Izen-ematea aldez aurretik

Elkar-ekin programan irakasle eta ikasleekin batera unitate didaktiko bat sortzen dugu. Taldearen behar eta interes espezifiketatik abiatuz, trebeziak lantzen lagunduko digun hiru-bost saiotako sekuentzia pedagogiko bat garatuko dugu. Ondorengo bloke hauetakoren bat abiapuntuztat hartuta zehaztuko dira gaiak: *Praktika artistikoak, feminismoak eta performance- edo espazio publikoa.*

IRAKASLEEKIN PROGRAMA

Irakasle, hezitzaile eta hezkuntzarekin erlazioa edo eta interesa duten pertsonentzat.

Programa honek irakaslegoa eta Tabakalerako hezkuntza taldearen artean jakintza eta esperientziak partekatzeko hainbat elkargune proposatzen ditu.

Hezkuntza prozesu partekatua bideratzeko espazioak dira, gure behar eta interesak ezagutzeko eta hezkuntza baliabide irekiak posible egiteko. Horretarako, hezkuntza eta kultura garaikidearen arteko elkarrizketa marko bat planteatzen dugu.



URRIAK 28 (larunbata)

Topaketa

OINHERRI. FORMAKUNTZA TOPAKETAK

9:00 - 14:00

Izen ematea aldez aurretik (Oinherri)

📍 Z aretoa

Oinherri argitaratutako lau liburuxken oinarri teorikoak ezagutzeko aldi bereko lau lantegi egingo dira. Liburuxkak ondorengo hauek dira: *Nola egin udaleku parte hartzailea* - Amarauna; *Nola egin ludoteka parte hartzailea* - Txatxilipurdi; *Jolasa: eskubidea eta errealitatea*; *Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak* - Tabakalera.

Jarraian, hurrengo argitalpenaren edukiak jorratzeko *genero eta gorputzen aniztasunaren* inguruko mahai-inguru bat aurkeztuko da: Bertan Candela elkarteko eta Bilgune Feministako kideek hartuko dute parte, besteak beste.

AZAROAK 20 (astelehena)

Topaketa

PEDAGOGIA FEMINISTAK LAN TALDEA. ZERO SAIOA

18:00 EU

Izen ematea aldez aurretik

📍 Sortzaileen gunea

Irakasle batzuegan nabaritu dugun jakin-mina abiapuntutzat hartuz, hezkuntzarekiko interesa duten pertsonekin talde bat osatzea proposatzen dugu feminismoei eta pedagogiari buruz eztabaidatzeko, gogeta egiteko eta ikertzeko. Tokapeta honen helburu dira: esperientziak partekatzea, elkarrekin hausnartzea, prestakuntza-tresna transferigarriak sortzea eta eztabaida kolektiboa egiteko esparru komuna eratzea.

Lehenengo saioa taldea eratu eta urteko datozen saioak programatzeko abiapuntu bezala baliatuko dugu.

2017/18 urtean zehar hiru elkargune aktibatzeko ideia daukagu, lehenengo saioa Feministaldiarekin batera garatuko da eta hurrengoak taldearekin batera zehaztuko dira.

AZAROAK 27, 28 (astelehena-asteartea)

Topaketa

FEMINISTALDIA. PEDAGOGIA FEMINISTAK. SISTEMA BERRABIARAZIZ: GURE GORPUTZAK, GURE GENEROAK ETA GURE KONTATZEKO ERAK

Inma Hurtado

(antropologo feminista eta irakaslea)

27 > 17:30 - 20:30

28 > 17:30 - 19:00

Izen ematea aldez aurretik

📍 Sortzaileen gunea

Nola helarazten eta balidatzen da hezkuntza-arloan gure gorputz sexudunei buruzko ezagutza? Gure hezkuntza-ereduak aniztasunaren irudikapen urriak eskaini ditu eta, oraindik ere, ikuspegi dual, egonkor eta iraunkorra oinarri hartuta ematen du gure gorputzen eta esperientzien berri. Diskurtso feministak eta *queerak* hezkuntzara eramaten saiatuko gara lantegian, espero den normaltasuna ezegonkortze aldera. Generoaren mugak gainditzen eta auzitan jartzen dituen esploratuko dugu, aniztasuna eta konplexutasuna oinarri hartuta pentsatzea garamatzaten bestelako iruditeriak eskaintzeko, eta bururagarriaren, desiragarriaren eta, horrenbestez, bizigarriaren aukerak zabaltzeko.

+ Info: *Feministaldia 2017 topaketaren inguruko informazio gehiago Programa publikoan atalean, or. 38.*

0-6 BIZI!

0-6 *Bizi!* diseinu eta lankidetzarako proiektu irekia da. Proiektua 2016an sortu zen eta haren helburuetako batzuk dira elkar-ikasketa eta topaketarako espazioak erraztea. Gaur egun proiektuak hiru adar ditu: *0-6 komunitatea*, txiki eta handiek osatzen dutena, *0-6 Gunea*, egon eta partekatzeke erabiltzen duguna, eta *0-6 Programa*, modu sortzailean ikasteko lantegi programazioa.

URRIAK 4 (asteazkena)

Lantegia

0-6 URTE ARTEKO HAURENTZAT LANGAI PEDAGOGIKOAK SORTZEN

Xabi Beistegi, Leire López

17:30 - 19:30 EU

Izen ematea aldeaz aurretik

📍 Hirikilabs

Haurren garapen prozesuan garrantzi berezia hartu dute material pedagogikoek. Gai honen alde teorikoa aztertuko dugu, eduki ditzakegun material mota desberdinak ikusiko ditugu eta *0-6 Gunerako* material didaktiko batzuk eraikitzen hasiko gara.

URRIAK 20, 21 (ostirala-larunbata)

Lantegia

0-3 URTEKOEN JOLASA: NOLA IZAN BIDELAGUN?

Zorutik

Ostirala: 17:30 > Hitzaldi irekia

Larunbata: 11:00 - 13:00 > Lantegia

(Izen ematea aldeaz aurretik. Gehienez 10 familia)

Adina: 4 hilabete eta 2 urte arteko haurtxoak eta euren gurasoak.

📍 Hirikilabs

Jaioberriek jolasten al dute? Zertarako? Nolako da 0-3 urte bitarteko haurren jolasa? Zeintzuk dira haurren beharrak? Zein material eskaini diezaiekegu eta nola antolatu dezakegu espazioa? Nire haurrarekin jolastu behar dut edo bere kabuz utzi?...

Bi eguneko lantegi honetan 0-3 urteko haurren jolasaren garapenean helduon jarrerak duen garrantziaz hausnartuko dugu.

AZAROAK 11 (larunbata)

Lantegia

YOGA FAMILIAN

Lierni Gartzia Telleria

11:00 EU / Adina: 4 - 6

Izen ematea aldeaz aurretik

📍 Sortzaileen gunea

Familian bizitako yoga esperientziekin txiki eta handiok batera momentu dibertigarriak bizitzeko aukera eskaintzen dute. Norberaren barrurantz bidaia eginez, txiki eta handien arteko loturak landu, gure burua hobeto ezagutu, orekan egon eta gure inguruneaz gozatzeko tresnak ikasiko ditugu.

Lantegi hau barre egiteko, jolasteko, lurrera botatzeko eta elkarrekin ongi pasatzera etortzeko gonbidapena da. Gure eguneroko rolak apurtu eta mugimenduaren bitartez lasaitasun eta komunikazio espazio bat sortzeko gonbidapena.



HIRIA HACKEATU

Lantegi hau 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendua dago, eta oporraldietan gertatzen da. *Hiria Hackeatu hacker* eta *maker* filosofietatik abiatzen da, Tabakalerako Hirikilabs kultura digital eta teknologia laborategiarekin elkarlanean. Lantegi bakoitzean parte hartzen duen gazte taldearekin batera, ingurumena arakutzen dugu, eta eraldaketak proposatzen ditugu elkarlanean eta teknologia digitalen laguntzaz sortutako artefaktuen bidez.

ABENDUAK 26 > 29 (asteartea >ostirala)

Lantegia

KONTRA EGIN! PUBLIZITATEA HACKEATU ETA KONTRA-PUBLIZITATEA

DosJotas

10:00 - 14:00 ES / Adina: 12 - 17 urte

Izen ematea alde zurretik

📍 Hirikilabs

Mezu publizitarioen bitartez, markek espazio publikoa indarrez hartzen dute eta inkontzienteki kontsumo gurpil batean sarrarazten gaituzte. Mezu hauek ikertzeko astia hartzen badugu, gehiengoak gorputza eta identitatearen irudi normatibo bat aurkezten dutela ikusiko dugu.

Kontra-publizitatea, mezu komertzialen esanahiak hankaz gora jartzeko publizitatearen teknikez jabetzen dela ikusirik, teknika honetaz baliatuko gara gure bizitza indarrez hartzen duten mezu publizitarioen inguruan gure iritzia emateko, pentsatzeko, hackeatzeko eta adierazteko.

URRIA - EKAINA (Bi ostegun hilean)

ZOOM. BIDEO LABORATEGIA

16:00 - 18:00 / Adina: 16 - 21 urte

Izen-ematea alde zurretik (webguneko formularioa urriaren 8a baino lehen bete).

📍 Hezkuntza aretoa

Aurtengo ikasturtean ere *Zoom* ikus-entzunezkoetan, kultura eta arte garaikidean interesa duten gazteek osatzen duten lan taldera gehitzeko deialdia zabaltzen dugu. 16 eta 21 urte artean badituzu, zinema ikusi eta egitera etorri nahi baduzu, zeure interesak eta kezak azaldu nahi badituzu, barre egin nahi baduzu eta beste gazte batzuk ezagutu nahi badituzu, hau da zure lekua!

Urria hasieran lehen saio bat egingo dugu elkar ezagutu eta denon artean ikasturtean zehar zer egin nahi dugun proposatu eta erabakitzeko.



Kontra egin!

IRAILA - EKAINA (ostiralero)

Lantegia

HARROTU ILEAK. IDENTITATEA, HARREMANAK ETA GAZTEAK

18:00

📍 Prisma

Nola sentitzen dira Tabakalerara sarri datozen gazteak? Zer erlazio mantentzen dute eraikin barruko espazioarekin? Nola erabiltzen dute? Nola bizi dute?

Harrotu Ileak proiektuak hausnarketa bat proposatzen du bi zentzutan: alde batetik, gazteek erabiltzen duten inguruari buruzko gogoeta sustatzen du gazteen artean, inguru propio gisa uler dezaten eta eskubide eta betebeharrei dagokienez esku har dezaten; eta,

bestetik, erakunde mailako hausnarketa sustatzen du, bertako espazio publikoen erabilera eta okupazioa definitzeko.

Ikasturte berri honetan *Harrotu Ileak* espazioa martxan jarriko dugu berriz, ostiralero Tabakalerako bostgarren solairuan (Prisma) elkartuko gara. Denon artean, elkarrekin egin nahi ditugun ekintzak antolatu eta prestatuko ditugu.

ARCHIVERAS

AZAROAK 16, 17 (osteguna - ostirala)

Hitzaldia

MEMORIAK BERPIZTU

Mariló Fernández - LaFundició

18:00 ES

📍 Sotoa

+ Info: Erakusketak atalean, 19 or.



Harrotu Ileak



UBIK

Aurkibidea

PENTSAMENDUA
IKUS-ENTZUNEZKOAK
AUTOEDIZIOA
BIDEO-JOKOAK
TEKNOLOGIA
NEGUKO LANTEGIAK
BESTEAK

SORKUNTZA LIBURUTEGIA.



UBIK

PENTSAMENDUA

URRIAK 28, AZAROAK 25,
ABENDUAK 30 (larunbata)

Topaketa

ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA

Martxel Mariskal

11:30 - 13:30 EU+ ES / Adina: + 16 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Egongela

Gustuko duzu irakurtzea? Eta filmak ikustea? Gustuko badituzu, zergatik? Inori gomendatuko zenizkioke? Hala bada, har ezazu parte Ubiketik *Esploratzaileak* taldean. Liburutegiko funtsa abiapuntu hartuta, bertako liburu eta filmekin gozatzeko aukera izango duzu. Hartu zerrenda, irakurri, ikusi, partekatu eta proposatu.

URRIAK 27, AZAROAK 24,
ABENDUAK 29 (ostirala)

Topaketa

XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA

Iñaki Vázquez

18:00 - 20:00 EU + ES

📍 Ubik, Lantegia

Astea amaitzeko modu hoberik ote? Ostiral arratsaldea mahai-jokoetan aritzeko unea da Ubiken. Joko ezberdinetan aritzeko aukera izango dugu: arrazoiketa taktikoa edo estrategia lantzen dute batzuek; koordinazioa, esku-abilezia eta memoria bestek, badira zorian oinarritzen direnak ere.

Dadoak, fitxak, kartak, rola edo xakea eta beste hainbat joko ere pasako dira mahaitik. Ez galdu zure txanda!

IKUS-ENTZUNEZKOAK

URRIAK 12 > 14 (osteguna > larunbata)

Lantegia

GERUZAK, AZALAK, KROMA ETA ZU. BIDEOA EGIN KROMAREKIN

Jorge Núñez de la Visitación

10:30 - 13:30 (osteguna eta larunbata) /

11:00 - 17:00 (ostirala) **ES** / Adina: + 16 urte
Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik

Kroma izenez ezagutzen den Ubiken dagoen horma berdean elkartze bat egingo dugu. Horrek eskaintzen dituen aukerak eta narratibak baliatuz, beldurra, fantasia eta dimentsioak pertsonaia nagusi izango diren ikus-entzunezko bat sortuko dugu.

Zatoz zinema esperimental, akats eta efektu bereziekin jolastera!

AUTOEDIZIOA

URRIAK 25, AZAROAK 29,
ABENDUAK 27 (asteazkena)

Lantegia

ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK

18:00 - 20:00 EU + ES

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Autoedizio txokoa

Autoedizioaren munduan dauden eremu ezberdinak ezagutu ondoren, aurretik egiteari ekingo diogu. Hilabetero gai ezberdin bat jorratuko duen lantegi bat eskainiko dugu. Sortzeko prest al zaude? Datozen saioetan gai hauek ezagutzeko aukera izango duzu:

Urriak 25 - Oh, ez! Zu berriz ere!

Pertsonaien sorkuntza lantegia.

Azaroak 29 - Marraztu vs. Ilustratu.

Ane Zaldibar

Abenduak 27 - Gurutze + puntua = Gurutze-puntua! *Raquel Rodrigo*

PLÓMEZ FAMILIA. ANTZINAKO INPRENTEN BERRESKURATZAILEAK

Tipoak, zurak, berunak, tintak, paperak... tipografia ederrenak lortzeko formula magikoa!

Plómez familiako kideak inprenta klasikoen materialak berreskuratzen datoz eta hauekin, heldu eta gaztetxoentzako, bakarrik edo familian, zinez interesgarriak diren lantegiak eskainiko dizkigute.

Tipografia maite dutenek debekatuta dute ekimen hau galtzea!

ABENDUAK 8 (ostirala)

Lantegia

SUPER TIPO VELOZ. HAUR LANTEGIA

10:00 - 11:30 o 12:00 - 13:30 ES

Adina: 5 - 12 urte

Izen-ematea alde zuzenetik

📍 Ubik, Autoedizio-txokoa

Super Tipo Veloz tipografia ospetsua erabiliz, txikienek letrak nahiz ilustrazioak sortuko dituzte. Tipografiaren moduluak erabiliz ziguiluak egin eta forma aske eta pertsonalizatuak eraikiko dituzte

Alfabeto *super azkarra* sortuko dugu!

ABENDUAK 9 (larunbata)

Lantegia

EGURREZKO TIPOAK. KARTEL LANTEGIA

10:00 - 14:00 edo 16:00 - 20:00 ES

Adina: + 16 urte

Izen-ematea alde zuzenetik

📍 Ubik, Autoedizio-txokoa

Kartel tipografikoak diseinatu, prestatu eta inprimatuko ditugu lantegi honetan. Esaldi edo eslogan batetik abiatuz, ale gutxiko tirada duen kartela egingo dugu.

Tipografia mugikorrekin proba egin nahi duzu? Zatoz ba!

ABENDUAK 10 (igandea)

Lantegia

TXARTEL IMPRESIOA. FAMILIA LANTEGIA

10:00 - 11:30 edo 12:00 - 13:30 ES

Adina: + 6 urte + helduak

Izen-ematea alde zuzenetik

📍 Ubik, Autoedizio-txokoa

Zure eskuekin txartelak sortu nahi al dituzu? Tipografia mugikorrekin eta prestatuko diseinuak erabiliz, tinta eman eta txartelak inprimatuko ditugu kopuru txikian.



UBIK

BIDEO-JOKOAK

URRIAK 10, 24; AZAROAK 14, 28;
ABENDUAK 12, 26 (asteartea)

Topaketa

NIK ERE NAHI DUT!

11:00 - 12:30 EU + ES / Adina: +50 urte

📍 Ubik, Bideo-jokoaren txokoa

Nork esaten du bideo-jokoak gazteentzat bakarrik direla? Jolastu, saiatu, frogatu eta ondo pasatzeko ez dago adinik. Beldurra eta lotsa alde batera utzi eta atera iezaiozu etekina Ubik liburutegian bideo-jokoetan aritzeko aukerari. Probatu eta ikasi. Zatoz bideo-jokoen mundua deskubritzera!

AZAROAK 14 > 17 (asteartea > ostirala)

Lantegia

DO IT YOUR SHELF. APALATEGIA BIDEO-JOKO BIHURTU

18:00 - 20:00 EU + ES / Adina: +16 urte
Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Teknologia eta bideo-jokoaren txokoa

Lantegi honetan apalategi bat bideo-jokoetan aritzeko gailu interaktibo bilakatuko dugu. Pixelak sortzeko led argiak erabiliz eta kontrol digitaleko sistema baten bidez egingo dugu. Elkarrekin muntatuko al dugu?

TEKNOLOGIA

URRIAK 7, 14, 21, 28 (larunbata)

Lantegia

ARDUINOAZ EGATU

Unai Garrotxategi

11:00 - 13:00 EU + ES / Adina: +16 urte

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Gailu edo robot bat sortzeko aukera izango bagenu, zein funtzio eta ahalmen emango genizkioke? Arduino bezalako txip programagarriak gure eskura daude. Zuk ere programatu ditzakezu: aterki eguraldi iragarleak, baratza adimenduak, etxea kudeatzeko domotika sistemak... Sor dezagun zerbait Hardwarea, software librea eta gure irudimenarekin.

Aurreko aldietan antolatutako genituen lantegietan ezin izan bazenuen parte hartu, hemen duzu aukera!

URRIAK 21, AZAROAK 18,
ABENDUAK 16 (larunbata)

Lantegia

JOLABS. KUXKUXEAN

M-Etxea

11:00 - 13:00 EU + ES / Adina: +8 urte

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Lantegia

JoLabs. Kuxkuxean haurrak eta gazteak teknologiaren eta kultura digitalaren mundura hurbil daitezten Ubiken antolatutako lantegiak dira.

Lantegi hauetan, elektronikak, mekanika, kodea, bideo-jokoak eta fabrikazio digitala bezalako zenbait arlo landuko dira modu pedagogiko, kritiko, sortzaile eta dibertigarrian. Hauek dira datozen hilabeteetarako proposamenak. Eman izena!

Urriak 21 - Zure spinerra egin.
3 puntako spinnerrak gehiegi ikusi ditugu! Egin ditzagun diseinu berriak; egin dezagun gure argidun spinnerra.

Azaroak 18 - Canicarium.
Donostian bada mendi suitzarra eta laster... baita kanikariuma ere!
Kanikentzako mendi errusiar bat eraikiko dugu... kontuz errailetik irtetearekin!

Abenduak 16 - Kotxe magnetikoak.
Pila batzuk, iman pare bat...eta hop, prest dugu autopropulstutako ibilgailua!
Etorri zeurea egitera eta izan zaitetz azkarrena!

AZAROAK 4, 11, 18 (larunbata)

Lantegia

GAILU TEKNOLOGIKOEI ETEKINA ATERATZEKO LANTEGIAK

Gorka Julio

10:30 - 13:30 EU + ES / Adina: +16 urte

Izen-ematea alde zurretik

📍 Ubik

Zein gailu eramaten dituzu gainean?
Mugikorrek, portatilak, tabletak...
Badakizu nola atera horiei etekina?
Erreminta, erabilpen eta trikimailuak ezagutu nahi al dituzu? Azaroko larunbat goizetan duzu horretarako aukera. Eman izena eta atera etekina!

NEGUKO LANTEGIAK

Askotan beharrezkoa izaten da eguneroko errutina hautsi eta gure sormena bultzatuko duen giroan murgiltzea.
Horretarako neguko lantegiak antolatu ditugu; proiektu txikiak garatu eta gauza berriak ikasteko aukera ezinhobea.

Denbora libre modu atsegin eta dibertigarrian pasatzeko, ondorengo bi lantegiak antolatu ditugu eta, hauerz gain, ekintza ugari beteko ditugu opor-egunak: maketak, marrazkiak, estanpazioa, itzalen antzerkia, soinua, robotak, bideo-jokoak...

ABENDUAK 26 > 29 (asteartea > ostirala)

Lantegia

ZIKLOTROPOA. MUGITU GAUZA BERRIAK DESKUBRITZEKO

11:00-13:00 EU + ES

Izen-ematea alde zurretik (egun bakoitzeko izen-emate ezberdina)

📍 Ubik, Lantegia

Ziklotropoa zootropoa eta bizikleta baten arteko nahasketan sortzen den tramankulua da. Hankak mugitzen dituzun eta ariketa fisikoa egiten duzun bitartean, irudia abian jarriko da eta ikus-entzunezko lan txiki bat ikusi ahal izango duzu. Tramankulu hau ezagutu ahal izateaz gain, ikus-entzunezko arloarekin lotutako beste hainbat tresna ere sortu ahal izango dituzu: zootropoa, taumatropoa eta flipbooka.
Igo eta eragin pedalei!

Abenduak 26 - Zootropoa.

Abenduak 27 - Pika-pika.

Abenduak 28 - Stop-motion.

Abenduak 29 - Taumatropoa.

URTARRILAK 2 > 5 (asteartea > ostirala)

Lantegia

HITZAK IRUDIARENZAT. TESTUAK SORTU, IRUDIEKIN JOKATU

Yolanda Arrieta

10:30 - 13:30 EU / Adina: + 13 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Lantegi honetan modu sortzailean idatziko dugu, eta hitza eta irudia osagarri bihurtuko ditugu. Testu laburrak eta irudi mota desberdinak jarriko ditugu jokoan: irudi grafikoak, argazkiak, ikus-entzunezkoak. Gainera, ideiak gidoi bihurtzeko saiakeraren bat ere egingo dugu. Irudia eta hitzaren indarra ulertzeko modurik onena.



Itsaspeko Gorria

BESTEAK

URRIA, AZAROA, ABENDUA

(asteazkenero)

Lantegia

ASTEAZKENETAN UBIKEN

17:30 - 19:00 EU / Adina: 6 - 10 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Pentsamendua, ikus-entzunezkoak, soinua, bideo-jokoak, teknologia eta autoedizioaren inguruan esperimentatu eta ondo pasa nahi duzu? Astean behin, sortu eta egiteko momentua izan nahi duzu gai desberdinak deskubritzen dituzun bitartean? Ondo pasatzeko tartea duzu *Asteazkenetan Ubiken*. Zatoz deskubritzera!

URRIAK 3, 17; AZAROA 7, 21;

ABENDUAK 5, 19 (asteartea)

Lantegia

ITSASPEKO GORRIA: 1-4 URTE ARTEKOEK IKASI, SORTU ETA GOZATZEKO TARTEA

Naiara Palacios

11:00 - 12:00 EU + ES / Adina: 1 - 4 urte

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Itsaspeko gorria hartuta, Ubiken murgilduko gara familian. Sorkuntza lantzeko, materialak deskubritzeko eta horiekin jolasteko saioak dira itsaspeko gorrian egingo ditugunak. Itsaslami, olagarro eta itsas-zaldia bidelagun izango ditugu bidaia honetan. Txikiak eta helduek elkarrekin jolasten esperimentatzeko aukera ezinhobea. Bazatoz?

URRIAK 14, AZAROAK 11, ABENDUAK 9
(larunbata)

Lantegia

HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA

10:00 - 14:00 EU + ES

📍 Ubik, Lantegia

HorKonponen parte hartzeko ondoko bi baldintzetako bat (ala biak) bete beharko du edonork: askotariko eskulanean arloan irakasteko zerbait izatea edo ikasteko gogoia izatea.

HorKonpon egunerokoan erabiltzen dugun hainbat tresna konpontzea eta berrerabiltzea ardatz hartzen duen tailer irekia da (kafeterak, kremaierak, kontsolak...). Herritarrak autonomoago bihurtzea (do it yourself) eta talde-lana sustatzea (do it together) ditu helburu. Horretarako, adin eta gaitasun ezberdinetako jendea elkartu nahi ditu eta, teknika eta teknologiari buruzko ezagutzak partekatzearen bidez, elkarrengandik ikasteko bideak ireki.

Badakizu, hilabeteko bigarren larunbatean *HorKonpon* Ubiken.

Oharra: Urriko saioan, bizikletaren oinarritzko mantentzea nola egin ikasteko Kalapiekiko kideek lantegi gehigarria eskainiko dute 11:00etatik 13:00etara.

URRIAK 19 (osteguna)

Aurkezpena

GIZA LIBURUTEGIA

11:30 - 13:30 EU + ES

📍 Ubik, Lantegia

Giza liburutegia pertsonetan eta euren bizipen, esperientzia eta ezagutzaren bidez sortzen diren harremanetan oinarritzen da. Elkarrizketa gurutzatuen bidez, liburutegiko protagonistek bizi-istorioak eta interes propioak partekatuko dituzte parte-hartzaileekin.

Plus 55-rekin elkarlanean.

URRIAK 24 > 25 (asteartea > asteazkena)

Jardunaldiak

LIBURUTEGIAREN EGUNA: BIG DATA. KULTURA ETA LIBURUTEGIAK

10:00 - 14:00

Izen-ematea alde z aurretik

📍 Z aretoa

Urtero bezala, Donostiako Udal Liburutegi Sarearekin eta Koldo Mitxelena Kulturunearekin batera antolatzen dugu *Liburutegiaren eguna*. Aurtengoan *Big Data* eta *Smart City* gaiak jorratuko ditugu bi egunetako jardunaldi eta lantegietan. Zein paper joka dezakete kultur erakunde eta liburutegiek *Smart City*etan? Nola atera diezaiokegu etekina *Big Datari*? Lehen mailako adituak izango ditugu gurean gai hauen inguruan solastu, hausnartu eta jolasteko.

KOMIKILABEA

Bigarren urtez, *Komikilabea* antolatuko da Donostian azaroaren 9tik 12ra bitartean. Hiriko hainbat eragilek bultzatua (Donostia Kultura, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Tabakalera), komikigintzaren inguruko ekintza ugariz beteko ditugu kale eta aretoak.

Hau da Tabakalerako sorkuntza liburutegitik proposatzen dugun egitaraua:

AZAROAK 8 (asteazkena)

Lantegia

ASTEAZKENETAN UBIKEN. GORPUTZA KOMIKI BIHUR DEZAGUN

17:30 - 19:00 EU / Adina: 6 - 10 urte

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Gorputza tresna gisa erabiliz komikia sortuko dugu. Lehenik eta behin, hatzak margoan busti eta kolore ugaritako irudiak egingo ditugu, ondoren nahi dugun moduan apaintzeko. Binetez hornitutako txantilo bat oinarri hartuta, komiki-egitura duen istorioa sortuko dugu, eta hatzekin sortutako pertsonaiei bizia emango diegu. Bukatzeko, hitzak gehituko dizkiogu irudiei, eta gure artelana komiki bilakatuko da.

AZAROAK 9 > 10 (osteguna > ostirala)

Lantegia

NOLAKOA DA ZURE HEROIA?

Garbiñe Ubeda

11:00 - 13:00 EU / Adina: 12-16 urte (Escola taldeentzako lantegia)

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Ez dago komikirik pertsonaiarik gabe! Garbiñe Ubedak gidatutako lantegi honetan komikietako pertsonaia sortzeko oinarritzko urratsak emango ditugu: forma, itxura, adierazteko duen modua... Gelatik haratago ere ikasteko aukera.

AZAROAK 11 (larunbata)

Lantegia

EZ IZAN KOMIKIAREN BELDUR! BINETEN SORKUNTZARA SARRERA LANTEGIA

Conxita Herrero

11:00 - 18:00 ES / Adina: + 18 urte

Izen-ematea aldeztu aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Noizbait izan zara istorio bat kontatzearen beldur? Pentsatu duzu hain indartsua eta boteretsua dela ezen ezin diozun heldu? Beldur eszenikoak paralizatuta utzi zaitu komiki bidez azaltzea otu zaizunean?

Lantegi honetan beldur horri aurre egingo diogu. Ausardia osoz istorioak marrazki eta bineten bidez kontatzen ikasiko dugu. Zatoz adoretua bazara!

AZAROAK 23 > 24 (osteguna > ostirala)

Topaketa

KOHAERENCE 2017

10:00 - 20:00 / 10:00 - 15:00 EU + ES

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Z aretoa

KohaFERENCE2017 Koha software librearen erabiltzaile eta interesdunen artean Estatu Espainolean egingo den bigarren topaketa izango da.

Liburutegi kudeaketarako sistema hau aukeratu duten erakundeak gero eta gehiago dira, eta beharrezkoa da komunitate bat identifikatu eta Koharen inguruan izandako esperientziak, arazoak eta erronkak partekatzeko leku bat izatea.

ABENDUAK 2 (larunbata)

Lantegia

HOBETU ZURE BIZIKLETA. LANTEGIA KALAPIE ELKARTEAREKIN

Kalapie

11:00 - 13:00 EU + ES

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Ubik, Lantegia

Bizikleta zalea zara? Zurea txukun, eroso eta polit mantentzea gustuko duzu? Etor zaitze lantegi honetara! Kalapie Donostia hiriko txirrindularien elkarteko kideekin batera, garraio, bizimodu eta lagun duzun bizikleta moldatu ahal izango duzu. Adi egon, sekulako lantegia prestatzen ari gara eta!

KohaFERENCE
2017

KOHA SOFTWARE LIBREARI BURUZKO **TOPAKETA**
ENCUENTRO EN TORNO AL SOFTWARE LIBRE KOHA

Kohaference 2017



LANTEGI IREKIAK

SORTZAI- LEEN GUNEA

—

Aurkibidea

KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: ERREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN
ATALAK
LANTEGI IREKIAK
ARTISTA EGOILIARRAK



AZAROAK 6 > 10 (astelehena > ostirala)

Mintegia

KOMISARIOTZA ETA HEZKUNTZA: KORREALITATEAREKIN NEGOZIATZEN

Koordinazioa: *Nora Sternfeld*

Gonbidatuak: *Ahmed Al-Nawas eta Ayse Gülec*

10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 ES + EN

Izen-ematea aldez aurretik

📍 Sortzaileen gunea

Modulu honek komisariotza jorratu nahi du, ideia honetatik abiatuta: komisariotza eta bitartekaritza prozesuek elkarbizitza natural bat dutela. Hezkuntzarekin, komisariotzarekin eta artearekin erlazionatutako estrategiak jarraituko dira bertan: esku-hartzea, ikerketa, irudimena eta gogoeta, besteak beste.

Aurkezpenak, irakurketak, eztabaidak eta lantegiak hartuko ditu barne moduluak eta horietan elkarrekin hausnartuko dugu hezkuntzarekin, komisariotzarekin eta parainstituzioekin lotutako praktiken etorkizunari buruz.



ATALAK

AZAROAK 30 (osteguna)

Sorkuntza koreografikoa

ATALAK XXIX

Eneko Gil, Eneko Alcaraz

20:00

📍 Patioa

ATALAK ekimenaren testuinguruan, Eneko Gil eta Eneko Alcaraz koreografoek astebeteko egonaldian Dantaz Konpainiaren dantzariekin sortu duten lanaren emaitza aurkeztuko dute.

ATALAK Dantaz Konpainiaren egitasmoa da, Donostia Kulturak bultzatua. Honen bitartez Euskal Herriko koreografoei astebeteko sormen egonaldiak garatzeko aukera eskaintzen zaie Dantaz Konpainiako 12 dantzariekin.

Tabakalera proiektu honen parte da, ondorengo erakundeekin batera: Dantzagunea, Centro Coreográfico Nacional Malandain Ballet Biarritz eta Azkuna Zentroa.

ABENDUAK 2 (larunbata)

Ate irekiak + Aurkezpenak

LANTEGI IREKIAK

11:00 - 14:00

📍 Sortzaileen gunea

Sortzaileen gunean egoiliarrek lantzen dituzten proiektuak lehen eskutik ezagutzeko aukera izango dugu egun honetan. Horretarako, lantegiak irekiko ditugu eta artistek aurkezpenak eskainiko dituzte.

ARTISTA EGOILIARRAK **PROIEKTU ARTISTIKOAK** **LANKIDETZAN**

IRAILAK 25 > URRIAK 22
MOVEMENTS & VIDEOGRAPHIES
Itxaso Díaz, Cai Tomos

URRIAK 1 > 28
LETTERS TO MARS
*Gerard Ortin eta Irati Gorostidi, Lara Khaldi
eta Yazan Khalili*

PROIEKTU ARTISTIKOAK

IRAILAK 17 > URRIAK 29
**RADIANT TEMPERATURE OF
OPENINGS**
*Faraz eta Parastoo Anoushahpour eta
Ryan Ferko*

URRIAK 20 > ABENDUAK 20
CONCRETE FLUX
Sophie Dyer eta Solveig Suess

URRIAK 23 > ABENDUAK 17
BLACK HOLE
David Martínez

KOMISARIOTZA **PROIEKTUA**

URRIAK 2 > 30
L'INTRUS
Natasha Marie Llorens

URRIAK 23 > AZAROAK 5
DARCY LANGE - LANEAN
Mercedes Vicente eta Tractora Koop. E












IKERKETA PROIEKTUAK

ABENDUAK 1 > 15
MUGAK/FRONTERAS
Maite Garbayo





OHARRAK





BISITAK

Erakusketak ezagutzeko eta eraikinaren historia eta memoriaira hurbiltzeko ibilbideak eskaintzen ditu Tabakalera.

IKASTETXEAK ETA ELKARTEAK

Taldeei zuzenduta, ibilbide tailerrak eskaintzen ditugu arte garaikidera hurbiltzeko helburuarekin (+ Info: or. 50-51). Erreserbak: **hezkontza@tabakalera.eu** o **+(34) 943 118 855**.

BISITA PRIBATUAK

Bisita pribatu bat eskatzeko (euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsezez edo alemanez). Erreserbak: **info@tabakalera.eu** o **+(34) 943 118 855**.

BISITA SOLASALDIAK ETA BISITA ESPERIMENTALAK

Erakusketak ezagutzeko bisitak. +Info: or. 14-17
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo Informazio puntuan.



AKTIBITATEETAN IZEN-EMATEA

Izen-ematea aldez aurretik egitea eskatzen duten aktibitateetan parte hartzeko, **tabakalera.eu** edo Informazio puntuan eman izena.

ZINEMA SARRERAK:

- tabakalera.eu
- Leihatilan emanaldia baino 30' lehenago
- Informazio puntuan
- Prezioa: 3,50€

IRISGARRITASUNA



Eraikina dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zein familientzako egokituta dago hein handi batean.

Gurpildun aukli bat dago erabiltzaileon eskura. Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzuarekin (ZHIZ) bisitak erreserbatzeko aukera ere badago.


ZINEMA: Zinema aretoak Bukle magnetiko sistema eta sei besauki egokitu ditu, lehen ilaran.

TABAKALERA TXARTELA



Tabakalera txartela eskuratzeko aukera dago Ubik, Tabakalera sorkuntza liburutegiaren harreran (2. solairua).

NOTA: Eskuorri honetan argitaratutako programak aldaketak jasan ditzazke. Azken eguneraketak ikusteko web orria kontsultatu.



Informazio puntua



Igogailuak

WC



Eskailerak



Jatetxea



TABA





Hotela-Egoitza

+info
tabakalera.eu

SOLAIRUA

0 WC

- 1 SOTOA
- 2 PLAZA
- 3 KUTXA KULTUR ARTEGUNEA
- 4 NANA
- 5 LÄNTOKI
- 6 ARTEUPARTE
- 7 TOBACCO DAYS
- 8 BASQUE LIVING
- 9 ELÍAS QUEREJETA
ZINE ESKOLA
- 10 TABA 
 Nestor Basterretxea
plaza

1 WC

- 1 TABAKALERAKO
ERAKUSKETA ARETOA 1
- 2 TABAKALERAKO
ERAKUSKETA ARETOA 2
- 3 1 ESPAZIOA
- 4 PATIOA
- 5 ZINEMA, 1 ARETOA
- 6 Z ARETOA
- 7 HEZKUNTZA ARETOA
- 8 KUTXA KULTUR KLUBA
- 9 GANBARA
- 10 HOTELA-EGOITZA
TABAKALERA HOUSE 
 Andre zigarrogileak
plaza

2 WC

- 1 UBIK
- 2 DONOSTIA ZINEMALDIA
bulegoa
- 3 EUSKADIKO FILMATEGIA
bulegoa
- 4 ZINEMA, 2 ARETOA

3 WC

- 1 TABAKALERA bulegoa
- 2 HIRIKILABS
- 3 SORTZAILEEN GUNEA
- 4 K ARETOA
- 5 ZINEUSKADI bulegoa
- 6 ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
bulegoa
- 7 IMPACT HUB DONOSTIA

4 WC

- 1 KUTXA KULTURGUNEA
- 2 ZABALTZA

5

- 1 PRISMA
- 2 TERRAZA

TABAKALERA



ORDUTEGIA

ZENTROA

Astelehenetik ostegunera:

08:00 - 22:00

Ostirala:

08:00 - 23:00

Larunbata:

10:00 - 23:00

Igandea eta jaiegunak:

10:00 - 22:00

UBIK

Sorkuntza liburutegia

Asteartetik larunbatera:

10:00 - 14:00

16:00 - 20:00

Igandea eta jaiegunak:

10:00 - 14:00

ERAKUSKETAK

Asteartetik ostegunera:

12:00 - 20:00

Ostirala:

12:00 - 21:00

Larunbata:

10:00 - 21:00

Igandea eta jaiegunak:

10:00 - 20:00

+Info: info@tabakalera.eu · 943 11 88 55 · Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián · Gipuzkoa

tabakalera.eu



[#gozatutabakalera](https://twitter.com/gozatutabakalera)



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN